

**URRUZUNO**  
literatur lehiaketa  
**1989**

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila  
Euskara – Zerbitzua









HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA  
EUSKARA ZERBITZUA

*irakaskuntza ertainetako*

**URRUZUNO**

**literatur lehiaketa 1989**

LAN SARITUEN BILDUMA



Gasteiz 1989  
EUSKO JAURLARITZAREN ARGITALPEN ZERBITZU NAGUSIA

Lehenengo Argitaraldia: 1989ko Iraila  
Ale kopurua: 2.000

- © Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Administrazioa  
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila  
Azala: Jesus Iturriza  
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Wellington Dukearen kalea, 2 - 01011 Gasteiz  
Fotokonposizioa: DIDOT, S. A., Nervión kalea, 3 - Bilbo  
Inprimatzailea: GRAFO, Avda. Cervantes, 59 - Basauri  
I.S.B.N.: 84-7542-694-8  
Lege Gordailua: BI-1910-89

## AURKIBIDEA

Hitzaurrea ..... 7

### Prosa: A maila

- Eguzkiak begiratu eta irri ..... **Aitzpea Lazkano Orbegozo** 11
- Hosto bat bailitzan ..... **Mikel Santiago Arizaga** ... 17
- Idazle proiektu baten aburruak ..... **Ainhoa Ezeiza Ramos** ..... 25
- Montparnasse-ko usoak dira igaro ..... **Mikel Imaz Irastorza** ..... 31
- Panpina bat besterik ez .. **Miren Larrarte Otegi** ..... 41
- Alaitzen jakinmina ..... **Arrate Zubillaga Zurutuza** 51

### Prosa: B maila

- Autobeldurtze prozesua **Arantxa Mendieta Lasarte** 63
- Bi egun New-Yorken .... **Katrin Naroa Zabalo Enparantza** ..... 71
- Galdutako bihotzaren bila **Leire Goitia Pastor** ..... 79
- Gau hartan... iluntasunean **Laura Redondo Pares** ..... 85
- Iraganarekin topo egitean **Amaia Ormaetxea Irleta** .. 93
- Bizi ..... **Estitxu Zubeldia Aierbe** .. 103

## Poesia: A maila

- Hiriaren ostadarra ..... **Xabier Aranburu Zeziaga** 113
- Oihartzun eta tenk ..... **Patxi Galarraga Aiestaran** 121
- Taiga eta Zorrilla ..... **Patxi Galarraga Aiestaran** 127
- Zentzu eta funts ..... **Mikel Imaz Irastorza** ..... 135
- Zergatik? **Mikel Agirre Lazkanoitur-  
buru** ..... 143
- Itsasoak daki ..... **Asier Kastañares Etxeza-  
rreta** ..... 151

## Poesia: B maila

- Abestiaren argia ..... **Begoña Beobide Azpeitia** 161
- Ahotik ere ihes egiten dun **Aitor Jauregi Larrañaga** 167
- Gauaren atsedeen isila .... **Ainhoa Aranguren Oihar-  
zabal** ..... 171
- Heriotzaren magalean ba- **Garbiñe Intxausti Orma-  
nengo** ..... **zabal** ..... 177
- Maitasun gorrotatua ..... **Amaia Ormaetxea Irleta** .. 183



## HITZAURREA

Laugarren urtea bete du, oraingo honekin, Irakaskuntza Ertainetako URRUZUNO LITERATUR LEHIAKETAk. Ezin esan izugarritzko hazkundera izan duenik, kopurutan behintzat, baina eustea ere ez da gutxi izaten. 395 lan aurkeztu dira 1989ko ekitaldira (iaz baino 5 gehiago). Ez zaigu kopuru hori inondik ere gutxiestekoa iruditzen, batez ere 395en atzean dagoen lana, itxaropenak eta ilusioa begibistatik galtzen ez bada. Aurtengoan, gainera, urte desberdinetan eginagatik ere, bi Urruzuno Lehia-keta suertatu dira ikasturte beraren barruan. Ikastetxeetan lanak bidali aurretik egiten den aukeraketa zenbaterainokoa den ere neurgai dugu oraindik eta ez jakin, eta ezin hurrik eman, bidean geratutakoen zenbatekoa.

Sari bakoitzari, bestalde, honako hau dagokio:

- Irailean Jugoslaviara egingo den bidaia.
- Bidaia horretako norbere gastuetarako laguntza: 25.000 pzta.
- Oroigarri bat. Irailean emango zaie irabazleei, horretarako bereziki antolaturiko ospakizunean.
- Lana bilduma honetan argitaratu eta eskoletan zein parte-hartzaileen artean zabalkundera egitea.

Aurtengo Lehiaketaren berezitasun bat aipatu beharrekoa iruditzen zaigu. Idazle berak sari bat baino gehiago irabaztea gertatu izan da behin baino gehiagotan. Kasu horretan irabazleak hautatu izan du, aurtengorarte, berak bi aldiz gozatu ezin zuen bidaia horretara nor gonbidatu. Iazko epaimahaiak, ordea, saria irabazteko puntuan egon eta ezer gabe geratutakoren batek bidaia egitea egokiago ian zitekeela eritzi zion eta halaxe jaso zen aurtengo Lehiaketaren deialdian. Eta hara non, behin baino gehiagotan gertatua, hirutan pilatu aurren; hiru izan bait dira bina sari irabazi dituztenak. Hori dela eta accesit modura edo aukeratutakoak dituzu, beraz, lau multzotariko hirutan azaltzen diren seigarren sarituak.

Urteroko hitzaurreetan ikus daitekeenez, poesi arlor aurreketen ziren lanen urriak kezkatu zeukan epaimahaiak. Bigarren eta hirugarren urtean ez zen hauen kopurua % 13tik pasa. Aurtengoan aldaketa nabarmena izan dugu honetan, kopuru horrek gora egin bait du % 33raino. Berri pozgarria hau ere!

Ikastetxei egiten zaizkien aipamen berezietan, berriz, Donostiako Sto. Tomas Lizeoa eta Urretxuko Garaialde Lizeoa izendatu dira, seina sarirekin. Laudagarria benetan literatur arloan egiten ari diren ahalegin berezia. Uzta jasotzen hasiak ditugu, dagoeneko. Iraungo al die kemenak eta izango al dute jarraitzailerik! Ez ote da hau erraz kutsatzen den gaitz horietako bat?


Lagunduko al du sorta honen irakurketak kutsatze lan mesedagarri horretan! Betor zorioneko gaitza eta har bitza beretzat euskal gazteen gogo-muinak!

EUSKARA ZERBITZUA

## **PROSA. A maila**

B.B.B.ko 3. kurtsoa, UBI,  
L.H.ko 2. gradua eta  
IEEKO 2. zikloa.





## **Eguzkiak begiratu eta irri**

Aitzpea Lazkano Orbegozo  
Sto. Tomas Lizeoa  
DONOSTIA



«Negargarria! Leio-ostean itzalia  
bizitz-bizitza uan garra!...  
Ire eguzkiaren ilunabarra!...  
Betiko il argi guztia!...»

(Lizardi)

Eguzkiak begiratu eta irri egiten dit hare epelean etzanda nagoela bere errainu zulatzaileak bidaliz eta nik, hala ere, bertan segitzen dut koma estadu inkonsziente batean murgildurik bezala, eta nire gorputz biluzia eskuineko saihets aldean freskura sentitzen hasi da, baina agindua nire burmuinetara iritsi denean ere ez naiz mugitu: itsasoa da, bere apar zuriarekin nire larru-azala busti nahian dabilela eta burbuilak nire sabel gainean jolasten bezala geratzen dira nolabait, nire baitan, kilima zirraragarriak sortzen dituztelarik.

Baina ez naiz mugitu, isiltasun honek bake giro sakon bat sortzen bait du inguru osoan eta belarrira iristen ari zaizkidan burbuilek gauzatxoak esaten dizkidate isil-isilik.

Itsaso urdinak mingain bat dirudi, gorputz bat laztantzen duen mingain dizdiratsu garoia, inolako haserrerik sor ez dezakeen laztana da; nola mugituko naiz bada? Mugitzea bere musurik nahi ez dudala onartzea litzateke.

Azken uda honetan bakea eta poza sentitzen dudan toki bakarra hondarza bakarti hau da; hemen pentsatu ere egin gabe egon naiteke minutuak eta minutuak uraren murmurio goxoa entzunaz. Aldian behin karramarroren baten solasaldia ere entzuten dut. —Zer nahi didazu esan? —galdetuko nioke. Baina berak bere hizkuntza bitxi horretan esan didana ez diot ulertu eta benetan pena sentitu dut.

—Eta zergatik nago hemen, hondartza bakarti batean, isilik, karramarro eta animalia bitxiez inguraturik? —galde dezake norbaitek.

Eta ez da erraza erantzuna. Ni, herri honetako edonor bezala bizi naiz, egunero ikastolara joan, etxera iritsi, nire sendiarekin egon eta ohera joaten naiz. Batzutan hori aldatu egiten da, nire lagunekin paseatzera joan eta ondo pasatzen dut.

Baina egunero baita ere, gaua iristen da, eta nire ohe goxoan sartzen naizenean, ezin ditut amari agindu dizkiodan errezoak egin, ez zait ateratzen, ez naiz kontzentratzen.

Eta pentsatzen hasten naiz.

Pentsatzen...

Nire aurrean irekita ageri den leiho zabaletik zulo txo dizdiratsu batzuk ikusten ditut edonola sakabanaturik zeru beltzean. Txikia nintzela ezin nuen sinetsi lagunek zulo txo horiek nire etxe osoa baina handiagoak zirela esaten zutenean eta aho zabalik geratzen nintzen.

Nik erraldoi batzutan pentsatzen nuen; erraldoi horiek orratz majikoekin zeru beltzean zuloak egiten zituztela uste nuen eta gaiztoak ginenean estali egiten zituzten guk ez ikusteko. Izar asko zeudenean, pozik, saltoka hasten nintzen oso txintxoak ginelako.



Behin kartulina beltz handi bat aurkitu nuen nire margoak gordetzen nituen kaxan eta burutapen bat otu zitzaidan: orratz bat hartu nion amari, josteko arropak edukitzen zituen armario-tik; aurkitu nuen orratzik handiena zen, ederrena eta zuloak egiten hasi nintzen kartulinan. Niretzako zeru partikular bat egin nuen, ilargi eta guzti, eta gauean, argia piztu eta nire aurpegi aurrean jarri nuen.

Baina egun haiek amaitu dira eta leihotik begiratzen dudanean badakit erraldoiak ez dabilzala zuloak egin eta egin, eta galdera bat sortzen zait: nork jarri ditu izar dizdiratsu horiek hor?

Orain hondartza leun honetan etzanda nagoela, desira bat sortzen zait: zer gertatuko litzateke nigana gerturatu eta urrutiratzten diren olatu hauek zurrupatuko banindute? Hor, ur urdinaren azpian ez da izarrik ikusiko, ez da nire ideia zoroengatik barre egingo duen lagunik egongo. Kezkarik ez, arazorik ez.

Zer egongo ote da? Agian herri bat dago, itsas gizonez beteriko herriska bat.

Bapatean nire ondoan, eskuin aldean, itsas-aldean, nire esperantzen aldean, zerbait somatu dut, baina ez dakit zer den. Norbait egongo balitz bezala sentitzen naiz, bijilatua bezala; eta hurrengo olatuak nire azala ukitu duenean hotzikara bat sentitu dut bizkar-hezurrean zehar: ez da ura ukitu nauena, nirea bezalako azal baten ikuitua dirudi. Zer demontre gertatzen da?

Hala ere ez ditut begiak ireki. Nire jakin-mina oso handia izan arren ez ditut begiak ireki. Nahiago dut ukitu nauen izakia ez ikustea, ezin du erreala izan; edo bai? Bada ez bada ere ez ditut ireki, eta hurrengo olatua etorri denean ere gauza bera sentitu dut.


Azkenean gerta zedin nahi nuena gertatu da. Begiak ireki ditut eta eskuin aldera begiratu. Ez dut ezer ikusi olatu bat

besterik: olatu handi bat; oso handia, izugarria, eta nire gainera erori da, osoki, beldurrik gabe, musu batek bezala ukitu du nire aurpegia, sabela... eta bere besoetan hartu nau, laztanduz, ferekatuz, ur gardenetan elkarrekin murgilduz.

Eta urpeko herri batetara iritsi gara. Izarrik ikusten ez den herrira. Nire ametsetako herrira. Eta bakarrik nago. Lagunak baditut, bai. Ni beraien arteko norbait naiz. Baina gau ilunetan izartxoak falta zaizkit. Nora joan zarete? Zergatik utzi nauzue bakarrik?

Orain ezin ditut erraldoiak imajinatu. Ez ditut izarrak ondo gogoratzen. Arrai bihurtzen ari naiz!!

Baina gau ilun batean ihes egingo dut. Ur azalera joango naiz eta ilargia ikusiko dut izar guztien erregin zuri. Eta bere aurpegi dizdiratsuarekin begiratuko nau. —Etorri gauero nigana— esango dit eta nik gauero, izarretan zehar bereganantz hegaz egingo dut...



## **Hosto bat bailitzan**

Mikel Santiago Arizaga  
Batxilergo Institutua  
GERNIKA



Ilargiak hire gorpua argitzen dik. Uhinak laztandu nahian zebiltzak, baina euren haratonaldiek ezin harrapa hazakete. Ez dakik sentitzen duan ala ez. Batzutan hire gorpuaren barruan dakusak heure burua; bestetan, berriz, kanpotik ikusten duk. Etzirudik hila hagoenik. Negar egin nahi duk, baina ezin dezakek, ez bait zarete bat hi eta heure gorpua. Pentsatzen hasi haiz. Hire gorpua hareatan zetzak, edonon, edonoiz, edonolakoa izan daitekeen hondartza batean. Neska bat zebilek ortozik oinak uretan bustiz. Ez zekik hire gorpua hor dagoenik. Oihu egin nahiko hioke, ikus hazan eta hire alde zerbait egin dezan. Berak ere arazoak izango dizkik. Agian, hi egon haizen baino gaizkiago zegok. Hi ere horretara etorria hintzen, ez al duk gogoratzten? Gaizki sentitzen hintzen eta bakardadea behar huen. Ile horia duk. Geldo-geldo zihoak hareatan bere oin arrastoak utziz. Haizeak bere ile mataza luzea astintzen zio. Burumakur zebilek. Noizean behin begiak hertsu eta gelditu egiten duk, zerura begiratzen dik eta errukizko keinuak egingo balitu legez, eskuak luzatzen dizkik. Laidoturik bezala, guztiz goibel jarraitzen zaiok edonork, edonoiz, edonola egin duen bideari. Hurbiltzen ari zaik. So egin iezaioke begietara. Bustirik zeudek, bere oinak bezain bustirik. Hiri begiratu dik. Bere begien islada izua ikusi duk «Ez ezan aldegin» pentsatu duk. Bazirudik aldegin nahi duela. Hire gorpuak bizirik ez duela bazekik eta estu zegok. Hi

ere betidanik izan haiz hildakoen beldur eta ez hadi harritu neskak aldegiten badu. Etzirudik, ordea, ihes egin behar duenik. Gero eta hurbilago zegok. Bapatean, ideia batek asaldatzen hau; hire gorpuak daukan gutxia kentzera zetorrek agian. Argi ikusten duk hire gorpuak eskuan daukan eraztuna. Ilargiaren argiaz distirutzen dik eta zirrara berezia egiten dik hiri ikusteak. Elenak oparitu zian, oroitzen? Neska hire ondoan eseri duk. Itsasoari begira zegok eta nonbait galdurik zeukak bere begirada hutsa. Bere begiek erlantz berezia zeukeate, bazirudik argitasuna daramatela. Malkoak iladan erortzen zaizkiok, geldiezina dirudien itogina sortuz. Hire esku indargea hartu dik. Ordubeta daramak hilik, baina oraindik ez zegok hotz hire gorpua. Hilek, harlauzek ematen duten hotza oroiterazten ziaten, oroitzen? Ba, hire gorpuak ez zeukak hoztasun hori. Beste eskua ere hartu dik. Ez zioke negarrari uzten. Kontsolatu nahiko huke, baina... Ezin onar dezakek hilik hagoela, ez da ala?

«Zureak ere egin du. Mundu honetako egunak haizeak daramatza eta guk ezin geldieraz ditzakegu. Hamalau urte nituen Josu jaio zenean. Ezustekoa izan zen haren jaiotza, ez bait genuen uste gurasoek beste seme-alabarik ekarriko zutenik. Uda-berria zen. Belardiak apaintzen zituzten loreek, eta, hondartzarako gogo biziaz zihoazen autoek nire neba maitearen oroitzapena zekarkidaten. Ai entzungo bazenit!... Oso ume polita zen. Gurasoak zahartuz zihoazen eta ni izan ninduen Josuk ama. Baina, udaberri ororen ondoren beti dator negua. Ez nuen uste niri suertatuko zitzaidanik. Aldizkarietan ikusten nituen maiz, osaezineko gaisotasunez bizi ziren haurrak. Beraietaz kupidatzen nintzen. Baina Josuri biziak zerion, bere begiek osasuna besterik ez zerakuskiten, eta ezin pentsa nezakeen bera ere eri zitekeenik. Heriok asbeteen kendu zidan ene umea. Alperrik izan zen ospitalea, alferrik anbulantzia eta sirenotsa. Nik ezin asma nezakeen irribarre alai hark zer izkutatzen zuen.

Hiltzen ari naiz. Jadanik heriotza neure buruaren erdiaz jabetu da. Inoiz ez diot beldurrik izan heriotzari, baina bai maite ditudanak galtzeari. Norbaitekin hitz egin beharra nuen eta zuk horrenbeste oroiterazi didazu neure Josutxo!»

Hiri mintzatu zaik. Malkoz busti dizkik hire eskuak. Olatuen zipristinekin batera, malko batek ukitu dik hire bihotza. Erdi-erdiraino heldu eta barru-barruraino sartu duk. Neskaren eskuak, hireekin loturik sentitzen dituk. Bere arnasa entzun dezakek. Epel hago, baina mugaturik dakusak heure burua. Pozik sentitzen haiz. Ez dakik zer gertatzen ari zaion baina hik ezin egin dezakek ezer. Bapatean, gorpu barruan hagoela sentitzen duk. Zartada berezia somatu duk hiregan. Indar egin duk eta argia ikusi diate berriro hire begiek. Hire gorpua gorputz duk. Itzar hadi bizira!

Ongi dakusak neska. Lehenago ikusi duan baino ederrago zirudik. Bera ez duk ezertaz jabetu. Ez dik itxaropenik eta bere buruarekin hizketan ihardun dik, hi hilda hengoela argi bait zekusan. Besarkatu duanean, harritu egin duk, baina ez dik beldur izpirik ere azaldu. Euskarria aurkitu dik hiregan. Ez dik galderarik egin, gertaturikoa erabat ulertuko balu bezala.

Hi gustora hago. Orain ongi gogora dezakek non hagoen eta zergatik etorri haizen hondartza honetara duela pare bat ordu. Neskari dena kondatzeko gogo bizia etorri zaik. Berak hiregan izan duen konfidantzak hire bihotza ireki dik, eta hizketan hasi haiz.

—Esan duzun guztia entzun dut. Ni ezkondurik bizi nintzen. Elena, nire emaztea, benetan liraina eta xarmanta zen. Baina semea izan genuenetik geure harremanak apurtuz joan ziren. Elenak etxetik kanpo lan egiten zuen eta lana egiteari utzi egin behar izan zion. Ezin uler zezakeen etxekoandreen bizi-

modua eta hartara beharturik, nik zerbait egin nezan eskatzen zidan bakoitzean, ez nekien zer erantzun eta eztabaida bortitzetan hasten ginen. Gaur arratsaldean ez naiz etxeratu. Hona etorri eta neure burua hil dut.

Zutitu egin haiz. Gau zoragarria egiten dik. Neska ere zutitu duk. Ilargiari begiratu dioanean, guztiz berria iruditu zaik haren aurpegia. Bero sentitzen duk. Eskutik heldu eta biok ibili zarete urertzean, elkarri begiratu gabe. Zorte ikaragarria duala pentsatzen duk. Neska jatorra zirudik eta sotila duk. Une batez, betidanik ezagutzen duala iruditu zaik. Aurrera begira segitzen dik hi ez bahengo bezala.

Bat batean norbaitek oihu egin du. Ez zirudik oihu mingarria baina hire neska lagunari zuzendu zaiola uste duk. Neska izutu egin duk, korrika hasi eta hik ere hasi beharra izan duk, eskutik askatu ez hauenez gero. Haitz arterantz harama, ez dakik zer gertatzen den. Galde egin nahi diok, baina ez zaizkik hitzak ahoratzen. Zaratarik atera ez dezaan eskatu dik. Hi beldur haiz. Edozein modutan eskaini nahiko hioke heure laguntza, baina ezin, aurrera zoazte, neska ez duk gelditzen. Azkenean, inoiz egon ez haizen toki batean agertu haiz. Neskak esertzera behartu hau eta hitz egin ez dezaan eskatu dik berriro. Jota hago. Lurrean etzan haiz. Lasai mintza hakioke orain. Zerbait esan nahi diok, baina ezin dezakek.

Une horretan hiri begira jarri duk. Jadanik ez dik lehengo aurpegi zoragarriaz so egiten. Dazkaan indarrak bildu eta zerbait ezpaineratzea lortu duk.

—Zer gertatzen da? Nork egin du oihu?

Bazirudik ez dantzuela. Eguna bere etorrera hurbil dela adierazten hasi duk. Baina, argitzen duen heinean hi itzaltzen ari haizela konturatzen haiz. Neskak berriro besarkatu hau ihes



egin ez diezaioan eta loak hartu dik hire besoetan. Hik ez duk ezer ulertzen.

Ezin duk ezer ikusi, baina norbaiten oinotsak entzun ditzakek. Neska iratzartu egin diate.

—Hil al dun?


—Ez! berak hil dik bere burua, eta hona ekarri diat izkutatzeko.

—Bere emazteari geuk hil egin dugula esango zionagu eta diruz asetuko gaitun.

Oinotsak aldentzen dantzuskik. Ezin mugi haiteke. Uhin hotsak izugarria dirudik. Bakean hago betirako. Orain argi dakusak bahoala, bahoala...

Hosto bat bailitzan malko bat erori zaik bihotz erditik eta harea artean galdu duk betirako.





## **Idazle proiektu baten aburuak**

Ainhoa Ezeiza Ramos  
Xabier Zubiri B. I.  
DONOSTIA



Neure buruak leihaketa honetan parte har nezan proposatu zidanean, ez nengoen batere ziur behar adina inspiraziorik izango nuen ala ez. Neure buruak beste okasio pare batetan ere abentura honetara bultzatu izan nauen arren, jadanik aise idazteko praktika galdua nuen. Halere, lerro bakarren batzu idaztera ausartu nintzen.

Hasieran ez zitzaidan ezer bururatzen; bapatean, ordea, pentsatzeko ene makina bihur honek bost edo sei ideia utzi zizkidan eskutartean telebista ikusten ari nintzela. Arras txunditu nintzen, aspaldidanik ez bait nuen sentitzen hizkiak paper azalean grabatzeko grina berezi hori. Beraz, luma berdeari estalkia kendu bezain laister, hortxe nengoen ni, inspirazioaren botoia sakatzeko asmotan.

Lehenengo hitzaren bitartez papera zikintzen hastera nihoan une horretantxe izuak menperatu ninduen: lortuko al nuen istorio polit bat, leihaketa batetara aurkezteko adinakoa? Jakingo al nuen pentsatutako hasiera horri ondo taxututako bukaera ematen? Dena den, nire aburuen gida-gurpila azkarki hartu nuen, ez bait nuen nahi baikortasunaren aurkako istripurik.

Azkenik, idazten hasi nintzen: «Denek tipo gogortzat naukate, eta ez nau batere harritzen (...)». Lehenengo pertsonan

idaztea maite dut, asmatutako pertsonaiean barneratzen laguntzen didalako batez ere. S.E. HINTON-en «Errebeldeak» elaberria hasi berria nuen, eta mota horretako pertsonaia bat deskribatzeko irrikitan nengoen. Tamalez, laisterregi hil zitzaidan eta gutxienez hiru orrialde aurkeztu behar nituenez —oinarriek hala diote— makinak beste pertsonaia bat utzi zidan mahai gainean: lehengo pertsonaiaren aurkako prototipoa. Ondorioz, biak lotu nituen joku antitetiko bat zubi zelarrik.

Dena ongi zebilela zirudien eta ipuin polita egin bide nuen. Arazoak ostera nire zain zeuden, nire patua bailitzan: idazkina desorekatua nuen ordurako. Bigarren pertsonaiaren psikologia aztertu eta azaltzerakoan luma ez nezakeen gera eta gehiegi luzatu nintzen ohartu baino lehen; beraz, hau ere hil behar izan nuen, kasu honetan bere buruaz beste eginaz.

Lantegiak ez zuen gehiegirik produzitzen —greban ote?— eta irudimenaren bulegora jotzeko erabakia hartu nuen. Horko abokatuek gomendatu zidaten lez, ni neu sartu nintzen ildoan, konklusio gisa. Nire egoera soziala eta existentziaren zergatiak laburki kontatu ondoren eta nire Shakespeare-renganako mirespena aipatu eta gero, esaldi eraginkor batez amaitzea hoberena izango zelako ustea izan nuen: «(Bizitzan) Zortea izango dudalakoan nago, eta, agian, idaztankera hobetzen badut, elaberri gile ospetsua izango naiz hamar urte barru».

Ipuin borobila atera zitzaidalakoaz ziur nengoen. Harro sentitzen nintzen, beteta, pozik. Hori aurkeztu behar nuen nahitaez. Zoragarri zegoen. Makinaz pasatzekotan nengoen, baina leher eginda geratu nintzen eta hurrengo egunerako utzi nuen.

Aitzitik, eta beti «aitzitik» batek enbarazu egiten dit kasu hauetan, idaztankera xumeegia, arruntegia zela konturatu nintzen nire tristurarako. Edonork idaz zezakeen nik egiten nuen modura, eta hori ezin nuen jasan. «Errebeldeak»-en erdia irakurri ahal izan nuen ordurako, eta autoreak erabilitako estiloa

adimenaren konputagailuaren diskette batetan bazegoen artxibatua. Horregatik, oinez nindoala ideia ederra bururatu zitzaidan —ideia eder guztiak oinez noala edo erdi lotan bururatzeko zaizkit beti— ipuin gatazkatsu hori azkenik borobiltzeko.

«Decoro poético» delakoa zen nire arazoa konponduko zue-na. Kontakizunaren hiru zatiak nabarmenki bereiz zitezene nahi nuen. Honetarako, hiru estilo erabili behar nituen. Hau zen ene eskema mentala:

1) Tipo gogorraren kontakizunean Hinton-en kutsu nabarmena antzemango du epaimahaiak, estiloa kopia huts bat dela uste dezan. Hika izango da (ez dut gehiegi menperatzen baina moldatzen naiz hola edo hala), kaleetako ankerkeria azpimarrazteko giroa egokituko dut eta pertsonaiaren barneko gatazkak ikusiko dira.

2) Tipo antigogorraren kontakizunean kontrastea da ezau-garri nagusia, narraketetan batipat. Existenzialista hutsa izango da eta Txillardegiren «Leturiaren egunkari ezkutua»-n erabilitako ezkortasuna markatuko dut.

3) Idazlearen partean —beraz, nirean— espontaneitateak izan behar du nagusi. Euskara zaindu bezain arruntaz idatzi beharko nuke. Era baikor batetan narratuko dut.

4) Hiru pertsonaien arteko loturak bortxatu itxura izan ez dezan, ideien eta esaldien errepikapena erabiliko dut.

Bai ederra aterako zaidala orduan! Inoiz idatzi dudana ipuinetan landuena izango da honako hau eta nire buruaren sail guztiok taldean egingo dugu lan honetan.

Honela pentsatu nuen. Ez nekien hain aldakorra nintzela: hurrengo egunean, gaur, «Errebeldeak» liburua bukatu dut. Liluratuta utzi nau; «Kaleko legea» baino askoz hobea da nire uste xumean. Behin baino gehiagotan busti dira ene masailak bere

kontura. Protagonistaren izakerarekin identifikatzen nintzen eta bere ingurugiroa nirearen ikuspegi erradikala zen, hau da, nik nozitzen dudan berdina baina era gogorrago batetan. Benetan, txunditurik utzi nau.


Ez dut idaztankera hori erabiltzeko behar adina kemenik; ez dut imitazio txar bat egiteko eskubiderik. Nire buruaren ausardia nolabait zigortu behar nuen, eta aurkitu dudan gauzarik okerrena, nire buruak itsuki gorrotatzen duena, berriz hastea izan da.

Beraz, orain arte idatzi dudana zigor soil bat besterik ez da eta leihaketara bidali behar dudana ez dut oraindik hasi. Hasi... hori da zailena. Nondik hasi? Nola hasi? Gainera, buruko lantegia birmoldaketa prozeduran dagoela esan didate oraintxe bertan, inspirazioa agortu zait eta irudimenaren bulegoa, egunerdiko lana duenez, orain dela bi ordu itxi dute. Bakarrik nago eta bakarrik sentitzen naiz. Nire burua, zigortzeagatik, modu honetan mendekatu da.

Leihaketan parte ez hartzea erabaki dut. Garai txarrean iritsi da. Ez dut gida-gurpila menperatu eta baikortasunaren kontrako istripuaren ondorioz izugarritzko isuna ezezik mekanikoaren faktura ere ordaindu beharko dut. Lur jota nago eta erdoiltzeko sosik gabe geratu naiz. Kitto! Gureak egin du!

Idazle sasiproiektu bat besterik ez nauzue. Erruki zaitetze nitaz eta ez nazazue gogorregi epaitu, arren.





## **Montparnasse-ko usoak dira igaro**

Mikel Imaz Irastorza  
Oianguren B. I.  
ORDIZIA



Paris, 1942.eko martxoak 5

Ene Vyvyan maitea:

Jada bost urte dira elkar ikusi ez dugula. Bost urte, halaber, nire aita Frederic hil zela bihotzeko gaitz batek jota, bost urte Veneziako kanaleetatik zehar jardun ginela, bost urte dira zure poema bakar bat irakurri barik igaro ditudanak.

Orain, une honetantxe, kanpoan, leiho-oihal ilun eta zahartuen bestaldean, euria ari du Pariseko kaleetan barna. Nire «escrittoire» honetatik zeruaren zati ttipi bat besterik ez dezaket ikus. Zertarako behar diot, ordea, sapai ezleial horren osotasunari begiratu? Ez du inongo zentzurik.

Idaztera noakizun eskutitz malenkoniatsu hau, galduriko bost urte hauen nahi ixilak desehorzten saiatu naizen fruitua besterik ez da, ez eta fruitua bera ere, hobe hazia esan, ororen jaiotze eta amilera, sentimendu guztien lehen inpresioa eta azken musua, ezin, ezin izan liteke azken laztana!

Ezagutu zintudaneko eguna gogoan dut bart izan balitz legez, «CAFE VERLAINE»-ko ezkutuko mahaitxo batean zeunden jezarrita, zigarro bat errez, te kikaratto bat zure ezpainen gorritasun izengabetuan nabigatzen ari zelarik, liburu erromantiko bat zure begietan hertsirik, bihotzean paristar pintatzaile

baten ixipukada; izan ere, koadro bateko pertsonaia zinela iruditu zitzaidan. Ahantzi ahal dezaket sekula une hartan nire bihotz barreanean piztu zen sentimendu bitxi hura? Ezetz uste dut, zuzenago litzateke ezetz sentitzen dut esango banu, pentsamenduak, ene Vyvyan maitea, joan-etorri ero baten morroiak baino ez baitira, alda daitezkeelarik, desagertuz, berpiztuz, ahantziz... sentimenduak, ordea, askoz ere gutarragoak dirade, gure Izatearen zati bat suposatzen bait dute behinik behin, izpirituaren dardarren antzera, o sentimenduak! Zein eder eta lerdunki abesten zenituzten zuk eta zutarrek giza barne izar hutsalak! Hala eta guztiz ere erromantikoegia zinela sentitu izandu dut betidanik; ni, ordea, askoz ere errealistagoa nintzen une horietan behintzat. Aldiz, ezin uka nezake zure NITASUN erromantiko hark nigan izan zuen eragin naturagaineko hura, ez zenidake inoiz ere barkatuko Balzac-en obraren bat irakurtzea.

Zure begietan, izan ere, topatu nuen inoiz aurkitu ez dudan zertxobait, eta, egia esan, ez naiz gauza maitasuna edo laztana den esateko, ez, ezin bereiztu bi hitz horien funtsa eta zentzua, ezin hel ninteke beren muga urdinetara; baina, nolaz bereiztu benetan haien arteko ezberdintasuna?

«CAFE VERLAINE»-n elkar ezagutu ondoren zure gordelekura eraman ninduzun, kaleei hezetasuna zerien nonahi, Paris amets batetik jaurtia izango balitz bezalaxe nekusan, Sena ertzean, hilzori, ubeldutako larrosa bat lez, huraxe bai sentsazio bitxi eta irrealak!

MONTPARNASSE-ko auzunean, hemezortzigarren mende estiloko etxe nagi baten teilatupe xarmant batetara eraman ninduzun. Sandaloz, musketaz, eta lilipaz usainduriko bizileku hartara heldu nintzenean, lerdentasunaren bortizkeria hutsa neureganatu nuela iduritu zitzaidan.

Hantxe, hormaren zurtasun ezohituan zintzilik agertzen ziren zure mihiseak. Delacroix-en «KIOS-eko SARRASKIAK»

zure askatasun egarriaren lekuko ziren, Gericault-en «MARMOKA-ren TXALUPA»-k giza desitxaropena eta trajikotasuna zeraman beregan; han zeuden guztiak, erromantizismo sutsu eta nostalgikoaren irudi gogaikarriak, «MAL DU SIECLE»-aren bekatu eta erliki osotoroak, hantxe aurkitzen zen, orobat, purpurazko oihal eskerga batean estalirik, hain gogokoa nuen «DORIAN GRAY-ren ERRETRATUA» Wildek berak ere mirestuko lukeena, Sir Basil Hallward-en obrarik nagusienak zure ixipuetan zuen eternitatearen ziurtasuna; narotasunez apainduriko lorategi batean, Dorian zoragarri hark bere edertasun eta gaztetasun lizuna erakusten zuen irrifar maltzur batez. Horiek ziren, izan ere, ene Vyvyan maitea, zure jeinuaren azalpen ezinbestekoak, halabeharrezkoak. Han-hemenka, katuttoen eserleku orlegien gainean, zumezko besaulkietan gaindi, hainbat eta hainbat liburu, eskuizkribu, poema amaitu gabe, sonetu, doinu batez asebastuta, SHELLEY, KEATS, BYRON, NOVALIS, TIECK, CLEMENS BRENTANO, HOLDERLIN, RIMBAUD... guztiak aurkitzen ziren Parnassoaren gorenean Apolok eta Musek beren izpirituen erromantze sekretuenak abesten zituztelarik doinu leunez. Hura zen haien paradisia eta momentuz bazirudien bizirik zirautela, piano beltz baten gainean Chopin-i zuzenduriko zenbait «Polka» partitura dantzari, larrosa zuriz beteriko lorontzi huts bat, bi uso ogi apurrak zoluaren iluntasunera jaurtiz.

Zure barne paradisia eskaini zenidan ene gogora erabil nezan, den-dena zegoen ene unibertso loratugabearen ernaltzeko prest, o beti prest! Ezin izan zitekeen, ordea.

Udazken gorria heldu zen, eta harekin bat negu iluna, denbora iraganaren baso elurtuetan galtzen zen bitartean. Gerra baten utopia haragiztatua ageri zen, Hitlerren ejerzitoek Paris hartu zuten 1940.eko ekainak 14ean, ihes egin zenuen, lehendik ere ez zintudan inondik ere aurkitzen, bakardade beltzean utzi ninduzun, zure paradisuaren ateak hertsu zenizkidan, zure azken promesa urmael likits batetara jaurti zenuen, betirako ote?

«LITTERATURE» aldizkarian hain ohizkoak gertatzen ziren zure poematxoek eta ipuin fantastikoek ere alde egin zuten. Nik, ordea, idazten jarraitu izan dut urtetarte honetan ahal izan dudan neurrian behintzat; «POESIE SUR LE GOUFFRE», «BERLIN MON AMOUR», «POETES MAUDITES; HITLER, GOEBBELS ET MUSSOLINI» eta tankerako poema liburutto zenbait, saiakera labur batzu eta izpirituak posible izan dituen beste hainbeste osakin. Han-hemenka argitaratu ditut, ezbeharrak neurri batean edo bestean gaindituz. Dena dela, txit gogorra egiten zait ene egoera kaxkarrean ezer idaztea, beste lehen mailako behar batzuei erantzun beharrean bait nago. Nire gurasoek zuten zeta eta oihal denda ttipi hura itxi behar izan dugu. Aita hil zitzaigunetik gauzak nahiko pattal joan zaizkigu, are okerrago nire anaia bakarra, Geoffroy, Mauthausengo kontzentrazio zelai batera bidalia izan zenetik; ez dakigu ezer ere berari buruz, ezta bizi den ala hilik dagoen ere. Idazten diogu idatzi makina bat eskutitz, baina ez dut uste irakur dezakeenik sikiera. Gainera, eta egoera berez txarra baldin bada, nire ama oso-oso gaizki dabil nerbioetatik, erabat urduritua aspaldion, zer egiten duen ere ez dakielarik, sikosis antzeko bat darabilkio buruan. Ahal dudana egiten badut ere, ezer gutxitan konpon dezaket ene amaren egoera larria. Atzerriratzea ere pentsatu izan dugu noizbait, Espainia edo Suitzara agian. Oraingoz hemen gaude, «RUE DE BOULOGNE»-ko lau pisutako eraikuntza hondatu honetan, ahal dugun neurrian okupazio madarikatu hau pairatzen.

Nazismoari buruzko zenbait liburu irakurtzeko aukera izan dut. «MEIN KAMPF» liburu dotrinal horretan ageri diren ideia eta teoria guztiak gizarte berri baten antolaketa adierazten dutela iruditzen zait niri, ene Vyvyan; nire ustez hitlerismoaren helbururik nagusiena, gerra hau irabazteaz gain noski, European errejimen homosexual militarista baten ezarpenaren nahia da. Txorakeria badirudi ere horixe da, beste arrazoi askoren artean, ene iritzia arazo guzti honekiko. Konsziente edo inkonszienteki

Hitlerrek gerra hau galdu behar duela garbi dakusat; aldiz, ez dakidana zera da: zenbat denbora behar ote dugun Hitler zapaltzeko, engendro nardagarri horrekin behingoz akabatzeko.

Ene ustez gerra baten oinarrian ez dago nork irabaziko edo galduko duen jakitea, baizik eta gerra horren ondorioak eta iraupenaren luzera, horixe da gerra bat gerra izan dadin egiten duena eta ez beste ezer: Inork ez du gerra bat irabazten nahiz eta guda eta gatazka guztietatik arrakastatsu irten, ondoren dator benetako gerra, kainoikada batek eragiten duen deuseztapenaren ondoren, azken sutearen ostean...

Arazo politiko eta beliko hauek alde batetara utziz, ene Vyvyan maitea, Venezian igaro genuen bolada haren irudi majikoak datozkit berriro gogora.

Hantxe maitemindu zinen zu Lord Cyril Wotton-ez, ingeles dandy hedonista hartaz. Kritikalari zorrotza benetan! Behin aurpegiratu zizun inoiz ahortzi izango ez dudan Lord Byron-en esaldi harrigarri hura: «Gizonak poemak idatzi baino zertxobait gehiago egin behar du bizitza honetan». Aho zabalik geratu zinen. Izugarritzko farregurea erne zitzaidan une hartan, eskarlatatzko itzal batek ene aurpegi zurbila gorritzen zidan bitartean. Ingeles «society»-aren seme dekadente hark benetan gorroto zuen bulgaritatea, Veneziak gorroto guzti horren aurkako antidoto bat suposatzen zuen, oraindik ere gogoan dut uneoro Veneziari buruz egiten zituen adierazpenetako bat: «Venezian edertasunak eta herioak bat egiten dute, eguzki hiltzoriak kuprez estaltzen ditu Adriatikoko olatugain zurixkak, marmorezko kupulan ditzira ur sakratu hauetan isladatzen den une bakanetan Marco Poloren irudia somatzen dudala iruditzen zait, iseka ari zatzaizkit Kathay-ko jadezko urontzi berdexka baten barrene-tik».

O bai! Ingeles gentleman hark zirrara bortitzez piztu zizun bihotz bera ere. Maiz galdetu izan diot ene buruari ez ote zen

hura izan gure aldenketaren arrazoia, edo arrazoi nagusia ez bazen ere, behintzat aldenketa hura eragin zuten arrazoietakoren bat.

Ene egunerokoan aldi hartan jaso nituen inpresio, uste eta sentimenduen itxura izkiriartzen dudan bakoitzean hotzikara zorrotz batek gorputz osoa bere pean darabilkit; Baudelaire-ren poema bakoitza irakurtzen dudan unean sentitzen dudana sentitu izan dut. Behin baino gehiagotan, gaueko ordu itogaitz lanbrotsuetan, garai hartan Venezian ikusi, sentitu eta entzun nituenak berriz ere zuzperten ditudanean, ene izpirituak uler ezin ditzakeen gauzak datozkit senera, inular fantastiko batean murgiltzear egongo banintz bezalaxe, «debut» baten aurrean aurkituko banintz lez Romeorena egiten, latza zait txit une hauetantxe, eta nire inguruan higitzen den errealitate gordin honen barruan, ene barne eta horren barnekoi ez den egoera emozionala kanporatze hutsa, ulertze hutsa.

Gerra Handia lehertu zenean Italiatik ihes egin beharrean aurkitu ginen, Veneziaiko mirakuluzko «cassone» hartan desestali genituen oropel guztiei agur esan beharrean izan ginen, San Marcos-en kupula urdina udaberriko zero nakareztatuan genekusan lehentasunez dizdir gure azken egunean, hodei miragarri bat lez, aingura itsastiar baten antzera, bere ikonoen sekretua argitu barik, haren bihotzean zabaltzen zen narthex urreztatuaren ortodoxia hausnartzeke. Huraxe bai izan zela, izan ere, gure lehen eta —espero dezagun— azken porrota.

Itzuli nintzen itzuli, ene Vyvyan maitea, Montparnasse auzoko «Cafe Verlaine»-ra. Mahaia hutsik, Toulouse-Lautrec-en ikasleen koadroak han ageri ziren, monsieur Savin-en bibolinak ere han jarraitzen zuen nota bohemioko ateraz; aldiz, zure poesiaren hutsa nabari nuen, zure ilargi betearen diztira, zure ilunabarren edertasunaren egarri nintzen, zure ametsen melodiaren gose, zure lumaren sinfonien maitale, zure tearen ke finaren ero!!!



«Paris est une sonate» egiazkoak ote dira Hitlerren hitz hauek, Eliseoak bisitatzen zituen uneetan esandakoak?

Hau bai dela tragedia gurea! Gerra batean jaio izatea eta beste batean herioa besarkatzea! Zein siniestro den guzti hau, hogeigarren mende bera lez, siniestro!


Niri betidanik laket izan zaizkit tragediak, tragedia grekoak nahi dut esan, eguneko tragedia hauek ez dute beste haiek zeukaten giza duintasun hura. Gaur egun, eguneroko errealitate garratz, xume, ximeldu honetan txit zaila da benetako gizaki bat izatea, giza-maila edo duintasun-maila batetara heldu bezain fite mozten dizkizute argizarizko hegoak munduaren hondamendira jaurtitzen zaituztelarik, edo eta putre nardagarriren bategue gure barrenak mokokatzen ditu behin eta berriz, etengabe, Sisiforen antzera. Gu gizakiok, harkaitz eskerga hau mendi gailurrera igo beharrean aurkitzen gara, dena den, tontorrera helterako atzera bueltan gaude harkaitz erraldoi hau gure esku pitzatuez bultzatzen, betirako, betidanik. Zeruak merezi al du itzaropenik?

Ene Vyvyan maitea, nire honako eskutitza amaitzera noakizu, ene hitzak hementxe itsasoratzen dira, betirako, o inoiz! Inoiz betirako... bi uso dakuskit hegoalderat hegan, desagertu dira jadanik, ez dut leiho-oihala irekitzeko asmorik, bere sedita-ehunetan galdu ote dira?

«Ene barnetik galdera bat datorkit, ez al ziren hegan zihozen bi uso horiek behin, aspaldi, zure zeruan ogi apurrak jaten ikusi nituen berberak?».

Au revoir, Vyvyan.





## **Panpina bat besterik ez**

Miren Larrarte Otegi  
Garaialde B. I.  
URRETXU



Antzerki haundi bat. Kolore urdin gorriak nahasirik. Jendea eszenatokian. Saioa hasiera doa. Antzesle garrantzitsuenak, protagonistak, hitz pare batzu egiten ditu. Ikuslegoari zuzentzen dizkion hitz hotzak, baita begirada bat ere.

Saioa aurrera doan heinean, jendearen algarek oihartzun ozen bat zabaltzen dute aretoan. Baina ikuslegoko pertsona batek ez du barregurarik. Bere aldamenetara begiratu, lepoa alde batera edo bestera mugitu, eta irripar zabal bat somatzen du guztien aurpegietan. Baina bere aurpegiak ezin du irriparririk egin, ez eta irri txiki bat ere.

Eszenatokira begiratzen du saioa ikusi nahian, bere aurpegiko keinua aldatu nahian, edo, hobeto esanda, bere muineko irriparra sortu arazi nahian. Baina ez du ezer ikusten. Ez du ezer ikusten tablada gainean dauden panpina batzu ez badira behintzat. Edonork mugi ditzakeen panpinak somatzen ditu. Alde batera edo bestera soka ikustezin batetik beso erraldoi batek mugitzen dituen panpinak. Aurrera edo atzera bere nahia kontutan eduki gabe, beste zerbaitekin, norbaiten eraginez ibiliko direnak. Gora eta behera ontziek ur gainean ekaitzaldi batean nabigatzen ibiliko diren panpinak.

Bai, honela ikusten ditu ikusle honek eszenatoki gaineko antzesleak.

Berriz begiratuko du aldamenetara, lepoa biratuz, bere ingurukoen irriparra mespretxatuz, haien algara gorrotatuz. Eta berriz zuzenduko ditu bere begiak eszenatokira. Eta nahitana-hiezkoa suertatzen zaio han gainera txontxongiloak eta aldamenean dauzkanak gonbaratzea.

Soka bat daukate ileetatik zintzilik. Soka ikustezin bat, panpinek izaten dutenen antzekoa. Gaur teatro honetara eraman dituen soka bat. Korrika egin arazten dien soka bat. Eta nigarrez hasteko gogo sortzen zaio, zeren badaki berak ere soka ikustezin bat baduela, nork edo zerk mugitzen duen ez dakien arren. Eta eszenatokiko titere bat bezela sentitzen da.

Berriz ere aldamenara begiratzen du eta lehenengo aldiz ikusten du bere ondoan, ezkerretan eserita dagoen ikuslea. Gizon motz bat da, bigote zorrotz bat aurpegian, begi txiki eta bigote artean aho zabal bat somatzen zaizkiolarik, algara betean. Eta mespretxua besterik ezin du sentitu.

Oraingoan eskuinetara begiratzen du eta bikote bat ikusiko du. Hauek ere algaraka. Agian algara baino gehiago irripar edo farre garbi bat dela esan daiteke. Beraien eskuak nahasturik aurkitzen ditu ikusleak. Beraien behatzak jokoan dabilta, baina begiak elkarri so egiten aritu beharrean, eszenatokira zuzenduak daude, han itsatsiak aurkitzen dira.

Eta hauengan ere panpina imaginario bat besterik ez du somatzen. Berak ere begirada saioan ezarriko du. Begirada kritikiko bat, aldi berean bere buruaren kritika bat delarik.

Eta pixkanaka-pixkanaka bere panpina izatea asumituko du eta ezingo du ukatu panpina izakera hau. Panpina izakera, jaiotzetik hil arte eta agian hil ondoren ere gainean daramagun gure nortasunaren edo, hobeto esanda, nortasun ezaren parte bat besterik ez da, batzutan parte haundi bat. Baina agian okerrena jendeak izakera hau ez duela bere baitan somatzen izango da,

gehiengoak ez behintzat. Baina gure ikusleak bere baitan so-  
matua izan du izakera hau, eta behin baino gehiagotan gainera.

Eta pixkanaka-pixkanaka bere burua aztertzen hasiko da, noiz eta non nabaritu izan duen gehienbat panpina izakera hau, soka ikustezin honen tirakada noiz izan den gogorrena, noiz bere gogoia bat izanik, bestea egiten duen. Eta momentu asko etortzen zaizkio burura, nahi baino gehiago. Txikia zenean, bost urte edo izango zituen batean, amona bisitatzera joaten zen egun horietariko batean, nola Itziarrek, lehengusinak, amatxotan jokatu nahi izan zuen. Gogoan du, biok eta beste ume batzu jolasean zebiltzan; jolas inozente batetan jokoan. Baina jokoak ezin izan zuen horrela jarraitu. Amonak jokoa moztu zien, eta ikuslea, txikiena izateagatik, zigorretik at gelditu zen. Eta beste haurrek, inbidiaz edo, gorroto zuten. Ikusleak, gure ikusle txikiak, amonaren magalean babesa bilatu zuen. Eta amonaren magalean babesturik jarraitzen du, beste lagunen, orain hain ume ez diren lagunen gorrotoak ere bizirik dirauelarik.

Gogoan du, halaber, hamabost bat urte zituenean, lagunekin aldameneko herriko festetara joan zeneko eguna. Egun hartan, koadrilan lagun zaharrago bat sartu zen. Eta hark, ohi-turaz edo, edateari ekin zioneko egun hartan, gure begiralea eta lagunak, oraindik gazte, ume ziren garai haietan, edateak ez zituen gehiegi erakartzen. Baina Joxek, lagun zaharragoak, beti egin ohi den bezala, zirikatu egin zituen edan zezaten. Gure ikusleak, ordea, ez zuen edan nahi izan. Joxek hala ere, berriz ekin zion edan zezala eta edan zezala errepikatuz, eta gure lagunak, edan egin zuen eta lehenengo aldiz zorabiatua sentitu zen eta gorakoak sentitu zituen eta azkenean, etxean amaitu zuen amak izugarritzko disgustoa zuelarik eta berak sekulako buruko mina.

Errealitatera itzultzen da. Buruan nolabaiteko mina sentitzen du, lehenengo mozkor hura pasa ondoren sentitu zuenaren

antzekoa. Lepoa biratzen du. Gizon txikiak begiak malkoz beterik ditu farrearen farrez. Eta bi eskuak sabela estutzen, algarek oinazea sentitu araziko baliote bezala. Aurpegia aho zabalak estaltzen dio, ia biboterik ere ikusten ez zaion moduan. Eta gure ikusleak soka ikustezinaren eragina nabaritzen du, soka ikustezinaren tirakada somatzen du gizontxoaren buruan. Eta pena sentitzen du, sekulako pena, bere burua ere hala ikusten bait du, tiratua, maneiatua.

Beste algara ozen batek burua jira arazten dio eskuinetara. Aldameneko bikoteko mutilaren eztarriak bidaliriko, isuritako algara ozena izan da.

Mutilak ia besoetan du neska. Baina beraien sentimenak ez daude bestearenak asetu nahian. Eszenatokian daude. Begiak han itsatsirik dauzkate. Pentsakera han itsatsia daukate. Nahia han itsatsia daukate.

Eta gure lagunak, hauengan ere soka ikustezina ikusgarria aurkitzen du. Tirakada somatzen du. Eta hauengatik ere pena, tristura sentitzen du, tristura handia. Sentimen horrek bihotza betetzen dio. Sentimen honek gorputza hartzen dio, bere baitan sokaren ekintza berbera dagoela badakielako.

Berriz murgiltzen da bere baitan. Eszenatokira begira dago orain. Begiak zabal-zabalik dauzka. Eszenatokian bikote bat dago jendeari irria eragiten. Emakumea kaskarra da, ile hori luzea duelarik. Gizona berriz, sabel izugarria duena, guztiz beltza, bere azal beltzak neska kaskarraren azal zuriarekin kontraste izugarria sortzen duelarik. Publikoaren algarak areagotuz doaz. Eta hauengan, panpin hauengan ere soka nabaritzen, ikusten, ia ikutzen du. Maneiatuak daude, jendearen farrea sortarazteko maneiatuak. Gidoi baten menpean. Gidoi estu baten menpean.

Eta berak ere badaki gidoi baten menpean bizi izan dela. Antzerkian bezala, erregela batzu errespetatu behar izan dituela.



Espazioa, denbora eta akzioaren erregelak berak ere errespetatu behar izan ditu, gizartetik kanpo senti, geldi ez zedin.

Eta hor maneiatua sentitu da. Bere gogoaren, sentimenaren, nahiaren kontra, ibaien korronteen kontra bezala joan bait da sarritan. Beti beste norbaiten nahia berearen gainetik jarriaz.

Gogoan du bai eszenatoki gainean dagoen bikotea bezalatsu bere burua ikusi izana. Berak ere bikote bat osatu zuen. Baina bikote horrek ez zituen hiru erregelak betetzen, ez zituen oinarrizko hiru erregela horiek betetzen.

Mutila ez zen bere status berdinekoa, behe mailako gizaki bat zen. Hemen zegoen erregela horietako baten apurtzea.

Amak mutila utzi eta bere mailako baten aurrean jarri erazi zuen. Mutil «on» baten aurrean. Eta gure ikusleak, beste mutil txarra, amaren esanetan, utzi eta «ona, maitagarria» hartu zuen. Ezkondu egin ziren. Izugarritzko ezkontza batetan murgildurik ikusi zuten bere burua. Eta eliz atzekaldean mutil umil batengan erreparatu behar izan zuen. Bere lehenengo mutila ikusi zuen. Eta hotzikara bat sentitu zuen bizkarretik buru muineraino. Malkoek begiak argitu zizkioten eta ia makilaia zabaldu zion. Gainontzekoek emozioari atxekitu zioten malko horien etorrera. Baina begi horiek bihotzaren nahiarekin bat eginik jokatu zuten. Eta malkoak aurpegian, masailatik behera isuri ziren, itsaso txiki partikular bat osatu nahian, gure ikuslegoa bertan itotzeko edo.

Ezkondu ondoren, ezkon bizitza dago. Ez zen hau USA-ko ezkon bikote perfektuaren eredu ordea. Gizon onak, emazte gaixoa alde batera utzi zuen laister. Eta emazte gaixoak mutil «txarrengan» pentsatzen zuen, bere senarra izan behar zen gizonarengan pentsatzen zuen.

Begiak oraindino eszenatokian dauzka itsatsirik. Eta ezkontza egunean bezelatsu begiak malkoz beterik aurkitzen ditu.

Algaren oihartzuna belarrietaraino heltzen zaio. Eta min sentitzen du. Min handia. Algarek min ematen diote. Gizon txikiak besoa ikuitzen dio konturatu gabe. Algaraka ari da aretoan sartu denetik. Badirudi bere kezka eta tristurak ahaztera etorri dela. Eta lortuko duelakoan dago. Titere gaixoa. Hemen-dik atera, eta bizitza normalaren bidea jarraitu beharko du. Bide korapilatsua, bide latza.

Ezin dio aretoan dagoen jendeari begiratu, ezta pena besterik sentitu ere. Pena handia. Goian norbait dagoen susmoa du. Sapaira begiratzen du. Beso erraldoi bat ikusten du. Beso erraldoi bat panpina guztien sokak mugitzen. Batzuk gora, besteak, behera, denak eta guztiok mugitzen.

Baina berak bakarrik ikus dezakeen beso erraldoiak alde egiten du. Bere buruan besterik ez zegoen. Bere irudimenaren fruitu besterik ez zen.

Eta eszenatokira zuzentzen ditu berriz ere bere begiak. Bere begi ilunak. Bere nahimen iluna. Bere bizitza iluna. Eszenatokian orain haur txiki bat dago. Tontakeriak egiten ari den haur txiki bat. Eta algaren oihartzuna berriz etortzen zaio belarrietaraino. Eta bere semetxoa gogoratzen dion haurra begiratzen du berriz ere.

Gogoan du bai, medikuarengana joan eta haurdun zegoela esan zioteneko eguna. Ume hori izatera bultzatua izan zen eguna, senarrak berari heltzeko erabilitako tresna. Amak esango duenaren bultzada. Baina beti bultzada.

Eszenatokira begiratzen du; oraingoan ere saioa amaitzeke dago. Pertsonaiak, denak eszenatokian pilotzerá doaz jendeak txalo ditzan. Jendea zutik jartzen da. Denek gogo biziz txalokatzten dituzte.

Gure pertsonaiak aldamenetara begiratzen du. Denak aztertzen ditu. Guztiak dira panpinak. Gidoi bat jarraitzen duten


panpinak, soka batek tiraturik mugitzen diren panpinak. Eszenatokira begiratzen du. Teloia erortzen da. Jendea badoa. Baina panpinak doaz. Gogoia izkutuan dute. Ez dute agirian sekula jarriko, soka ordea ikustezina izatetik ikusgarria izatera pasatzen ari da.

Teloia guztiz botata dago. Ez da jadanik ezer ikusten, teloi granate handi bat besterik ez bada behintzat.

Eszenatokiko panpinak joanak dira. Aretokoak irtetzen ari dira. Kanpoan beste antzerki bat montatzera doaz. Zeren, agian —nork esan lezake ezetz— mundua antzerki bat besterik ez da, panpina askok osaturiko antzerki luze bat.

## AMAIERA





## **Alaitzen jakinmina**

Arrate Zubillaga Zurutuza  
Garaialde Lizeoa  
URRETXU



Aurrean nituen liburuak alde batetara utzi eta irratia piztu nuen zerbait interesgarria entzuteko asmoz. Irratiak eguraldiari buruzko albisteak ematen ziharduen. Mundu guztia eguraldiaz guztiz kezkatuta zegoela, eguraldian aldaketa bortitzak ematen ari zirela... eta era honetako komentarioak zerabilzkien ahoan Herri Irratiko komentarista jaunak, noizean behin komentario ironiko bat edo beste egiten zuen bitartean. Une labur batez irratia ondoan egon nintzen, zutik, irratia hitzei inongo jaramonik egin gabe. Ondoren, horrelako berotasun jasanezin bat sentitu nuen gorputzean eta leihoa irekitzea erabaki nuen. Leihoa ireki eta kalean zer nolako giroa zegoen jakiteko gogo bizia nabaritu nuen. Leihoan ezarri nintzen. Kalean adin, izaera, arraza desberdinetako jende ugari ikus zitekeen. Batzu kalean gora eta besteak kalean beheara, bakoitza bere zereginetan murgildurik. Hau izan zen lehen inpresioa. Berehala, nere begien aurrean agertzen ziren pertsona horiek indibidualki aztertzeari ekin nion. Atentzioa deitu zidan oraindik gaztea zirudien baina bastoi bat zeraman emakume batek. Bere ilea leuna zen eta aireak bere sorbalda indartsuetan maitekiro kilimarazten zuen. Sorbalda horiek lepo luze eta ondo formatu baten oinarria ziren eta aldi berean lepo hori aurpegi xarmangarri baten oinarri. Aurpegiak larrosa txuri baten kolore garbia isladatzen zuen eta irrifar eta farren ondorioz sortutako ongi egituraturiko zimur horiek ardura

handiko pertsona bat zela jakinarazten zuten. Bestalde, bere gorputza liraina zen; gerri estua zuen. Hala ere bere hankek zerbait berezia zuten eta nere leihotik ezin nuen «zerbait berezi» hori zer zen jakin; beraz, ilea piska bat txukundu, oinetako egokiak jantzi eta kalera joan nintzen jakinminak bultzaturik. Eskailerak izugarrizko abiadan jaitsi nituen eta atariko atea igaro eta kalearen bi ertzetara begiratu nuen nere buruari emakumea non egongo ote zen galdetuz. Berehala topatu zuten nere begiek emakumearen gorputza. Atzetik jarraitu nuen emakumea. Bere pausoa lasaia zen baina beti beherakada berezi horrekin. Norantz joango ote zen galderari ez nion zentzudun erantzun bat lortu. Etxe aurreko kale estu eta luzea alde batetara utzi eta bide aldapatsu baterantz zihoala ikusi ahal izan nuen. Atzera begiratu nuen etxetik asko urruntzen ari nintzela pentsatuz, baina hasierako jolas hori bene-benetako jakinmin eta emakume hura ezagutzeko gogo bihurtu zen. Beraz aldapa gogor hori igotzeari ekin nion. Emakumeak noizean behin atzerantz begiratzen zuen eta nik gorputzean zehar horrelako zirrara dardarti bat sentitzen nuen. Jadanik ez nuen etxerik bereizten, herria zela suposatzen nuen puntutxo desfiguratu horretan. Lehenengo aldiz oroitu nintzen, etxetik ateratzeko izan nuen estualdiaren ondorioz, ordularia ahaztu zitzaidan. Zer ordu ote zen! Zerura begiratu nuen. Urdina zegoen oso. Zailtasunez ikus zitekeen bere bakardade isilean murgilduriko lainoren bat. Dena zegoen isil, oso isil. Bide ertzetako sastraka eta arantzak alde batetara utziz, eguzkiaren epela dastatzen zeuden behi eta ardi lardenak ikus zitezkeen belardi berde eta zabaletan; baina hauek ere isilik. Horrelako bakardade kezkatu bat sentitu nuen eta nahiz eta lotsatia izan, emakume harekin elkarrizketatxo bat izatea, bakardade hura apurtzeko eta bide batez bera ezagutzeko aukera ezin hobea zelabururatu zitzaidan. Horrela, hanken abiada bizkortu nuen eta berehala izan nuen bere atzean egoteko aukera. Hala ere, betiko lotsa eta txolinkeria horiek direla medio, ez nuen bera-



rekin elkarrizketa egoki bat mantenteko aitzaki egokirik aurkitzen eta aurkituko banu ere ez dakit berarekin mintzatzeko auzardiarik izango nuen. Ez nuen elkarrizketa hasteko beharrik izan, bera biratu eta ahots mehe eta alai batez elkarrizketari hasiera eman bait zion.

—Zer, mendi aldera paseotxo bat ematera ala?

—Bai, badakizu, eguraldi hau ez dago anitzetan topatzerik eta aprobetxatu beharra dago.

—Eta norantz zoaz?

—Ni etxera noa.

—Etxera? Eta non bizi zara ba?

—Hor, hurrengo bihurgunea igaro ondoren eskubitara hartu eta berehalaxe nere etxea ikus daiteke. Etorri nahi al duzu?

—Beno, ba nik... esto... zera... etxera joan beharra daukat...

—Tira, tira! Ez dut ezezkorik onartzen! Goazen!

Eta horrela, bere besoek nirekin bat egin eta pausoa arinduz bere etxerantz abiatu ginen. Bidean, hitzegiten jarraitu genuen:

—Eta nik etxera gonbidatu zaitut eta oraindik ez dut zure izenaren berririk. Zein da zure izena?

—Ni, Alaitz naiz. Eta zu?

—Ni, Garazi.

—Pozten naiz ezagutzeaz.

—Baita ni ere. Eta non bizi zara ba?

—Erdiko kalean.

—Ah, herrian bertan bizi zara?

—Bai.

Tipi-tapa, tipi-tapa aurrerantz gindoazen, baina ez zen etxerik agertzen eta bihurgunea pasatu genuela ia denbora dexente zen. Kezkatzen eta urduritzen hasia nintzen eta bazirudien Garazi horretaz konturatzen zela; hala ere bidea jarraitzen zuen isilik, aurpegian bere betiko irrifar hori marraztuta zeramalarik. Halako batean aurpegia niregana biratu zuen eta lasaikiro, etxea

hortxe bertan zegoela esan zidan eta ez neukala kezkatzeko inongo arrazoirik. Piska batean oinez jarraitu genuen eta hantxe agertu zen etxetxo txuri eta txukun bat. Txakur txuri baten zaun-kek eman ziguten ongi etorria. Garazik txakurrari isiltzeko agindua eman bezain laister, txakurra isildu eta bere etxetxora joan zen isatsa hanka artean zeramalarik. Etxearen aurrean oso ondo zainduriko lorategi bat ikus zitekeen. Etxeko leihoak ere geranio eta alegriek horniturik agertzen ziren, etxeari horrelako alaitasun giro bat erantsiz. Etxe barrura sartu ginen. Txukun ageri zen: Dotore eta sinplea aldi berean. Sarrerarik gabeko pasilo luze bat ikus zitekeen eta ezkerretara gorantz zuzentzen ziren egurrezko eskilara dizdiratsu batzu. Eskubitara hiru ate. Lehenengo gelara sartzeko gonbidapena jaso nuen Garaziren partetik. Barrura sartu nintzen. Sukaldea zela garbi zegoen. Ez zen oso handia baina gusto handiz apaindua zegoen. Aulki batean eseri nintzen eta edaritxo bat eta gozoki batzu atera zituen kristalezko plater batetan. Bera ere eseri egin zen eta berriro hitzegiten hasi ginen:

—Eta zuk zer, ikasi edo lan... zer egiten duzu?

—Beno, ni UBI-ko ikasketak amaitzear nago.

—Ah, zein ondo, eta gero zer egingo duzu?

—Beno... ba... oraindik ez daukat pentsatuta. Eta zuk zer egiten duzu?

—Ba nik ez dut horrela, soldata bat jasoz, lan egiten. Bizitzeko behar dudana nik neuk nere kabuz lortzen dut.

—Nola?

—Ba oso erraz, baratzean ereiten ditudan barazkiez, oiloek jartzen dituzten arraultzez, masustez, marrubi basatiez, intxaurrez, urrez, igaliez... eta horrelako gauzez baliatzen naiz elikatzeko. Bestalde noizean behin haragi apur bat jaten dut baina oso gutxi, beharrezkoa dudanean soilik. Bestalde, nere helburua mendia eta basoa txukun mantentzea eta bertako biztanle guztiak, hau da animalia eta landare guztiak defenditzea da.

Ah, bai? Zein interesgarria! Eta lortzen al duzu zeregin hori betetzea?

Beno, egia esan, oso zaila da horrelako zerbait lortzea baina saiatu, saiatzen naiz. Begira, esate baterako ikusi duzu hor kanpoan ongi-etorria eman digun txakur hori? Ba txakur horrekin beste hogeiren bat txakur daude etxean bertan. Ziurrenik sines-tezina irudituko zaizu baina halaxe da, txakur horiek hor dagoen etxetxo txiki horretatik sar daitezke, etxetxo horrek hor ondoko gelara ematen bait du eta beraiek nahi dutenean etortzeko askatasuna dute; beraiekin batera zenbait katu, untxi..., bizi dira: beno, bizi ez dira hemen bizi, hori garbi gera dadila, hau beraientzat babesleku bat besterik ez da. Han, atzeko gelan —eta hirugarren gelarantz eramán zituen begiak— han ia basurde, txerri, ahuntz, azeri, otso..., horrelako animaliak babesten dira. Goiko pisuan berriz hegaztiak gehien bat eta gero ba, intsekturen bat edo beste ere bai, baina oraingoz oso gutxi, ez bait dut beraiek ulertzeko edo beraiekin elkarrizketa bat izaterik lortu oraindaino.

—Ah, baina animaliekin hitzegin dezakezu ala?

—Noski. Hori lortzea nere urteak kostatu zait, baina pena merezi izan du.

—Nahi izanez gero, joango gara etxean animalia ren bat ote dagoen ikustera.

—Goazen ba.

Horrela, berriro ere pasiloan ginen. Garazik anekdota desberdinak kontatzen jarraitzen zuen eta nik konfidantza hartu nuen berarekin. Lehenengo, txakurren gelan sartu ginen. Bertan bere kumeak laztankiro miazkatzen zituen txakur bat ikusten zen, eskuinaldean. Beraien inguruan beste zenbait txakur ikus zitezkeen. Gu sartzean bertako animalia guztiak, eskuinaldean zeuden txakurrak, ezkerraldean zeuden katuak, bertan leku zehatzik gabe mugitzen ari ziren untxi, erbiak... denak hurbildu zitzaizkion Garaziri alaikiro. Garazik guztiak banan-banan laz-

tandu zituen eta ondoren ni aurkeztu ninduen. Nik ezin nuen begien aurrean ikusten nuen hori sinetsi. Animalia guztiek beraien eskubiko hanka eskaini zidaten eta nik leunkiro estutu nituen, nahiz eta beldur pixka bat izan. Garazik eguna nola pasatu zuten, ea basoan zerbait berezirik edo susmagarririk gertatu zen eta era honetako galderak egiten zizkien, eta animaliek zaunkaka, miauka, isatsa mugituz, burua alde batetik bestera eramanez edo belarriak mugituz erantzuten zioten Garaziri. Bestalde, gela oso txukun mantentzea lortzen zuen. Garazik eta animaliek zarata handirik ez ateratzea ere eginkizun zaila izan arren, lortzen zuen. Bertako animaliak agurtu genituen eta ondoko gelarantz abiatu ginen, Garazik animaliek bere familia osatzen zutela jakinarazten zidan bitartean. Zoragarria zen. Sinestezina. Nola zitekeen horrelako emakume gazte batek animaliak hainbeste ezagutzeaz aparte, beraiekin komunikatzea lortzea?

Bigarren gela horretan berriz, animalia barietate handiagoa zegoela iruditu zitzaidan. Ez nuen barrura sartzeko adorerik izan horrelako basurde, azeri, ahuntzak... ikusterakoan. Garazik atean geratzearen arrazoia galdetu eta nik beldur nintzela esan nionean, farre algaraka hasi zen, aurpegian espresio triste bat agertzen zitzaiolarik. Berak ez zuen ulertzen nola izan nintekeen bere semetzat zeuzkan animalia horien beldur. Animalia guztiak agurtu ondoren, goiko pisura zuzendu genituen pausoak. Bertara gindoazela eta ustekabeen bere hanka herrenaren istorioa kontatzen hasi zitzaidan.

—Begira, nik goizero mendian zehar ibilalditxo bat egiten dut eta goiz hartan ere nire ibilalditxoa egitera irten nintzen. Hor, Iturgorri inguruan nindoanean, norbaiten ahots otoipidea entzun nuen. Alde guztietara begiratu nuen, baina ez nuen ezer txo ere ikusterik lortu. Sakonkiago begiratu nuen ingurunean, baina ez nuen normaletik kanpoko ezer ikusten. Ia amore eman nuen eta, bideari jarraitzeko asmotan hasi nintzenean, berriro

ere ahots hunkigarri hori entzun nuen. Oraingoan, berehala kon-  
turatu nintzen hegazti baten ahotsa zela, eta instintiboki gorantz  
begiratu nuen. Bai! Txori txiki polit bat zen.

—Zer txori mota zen?

—Enara bat, eta hanka bat zuhaitzeko adarrek hartu eta  
bertan zegoen enara gaixoa, pagoaren adarretatik buruz behera  
zintzilikatua. Lagundu beharra nion lagun gaixoari eta horrela  
pagoaren enbor lerdena nere besoez besarkatu eta gorantz igo-  
tzen hasi nintzen. Zeregin horretan murgildurik nengoelarik, es-  
kuek irrist egin eta, pamba! Lurrera erori nintzen. Hankan ho-  
rrelako min jasanezin bat hartu nuen, baina txoriari askatasuna  
itzuli behar nionez, lurretik jaiki eta zuhaitzera igotzen hasi  
nintzen adoretzu. Hanka mugitzen nuen bakoitzean izugarrizko  
mina sentitzen nuen, baina une hartan txoriari hegan egiteko  
aukera ematea garrantzitsuago zela iruditzen zitzaidan. Beraz,  
indar handi bat eginez, goraino igotzea lortu nuen eta txoria  
askatu ondoren, zuhaitz gainean geratu nintzen txoriaren hegaldi  
lasaia kontenplatuz. Bihotzean hain poz handia sentitzen nuen  
non hankako nere zauria ahaztu bait zitzaidan. Zuhaitzean une  
labur bat gehiago egon ondoren, zailtasun handiz jaitsi eta lu-  
rrean zegoen makila mardul batez baliaturik, bastoi hau egin  
nuen. Ondoren etxera etorri eta hor dagoen telefono horretatik  
sendagilea deitu nuen. Egun batzuetan hanka igeltsaturik eduki  
eta oraindik ere ez zait guztiz sendatu, baina tira, aurreraka doa.

Hau dena kontatzeko erabili zuen denboran geldi egon gi-  
nen eta kontakizuna bukatzean, goiko geletara eramán ninduen.  
Haiek hegatziz beterik zeuden. Tamainu, era... guztietako he-  
gatziz eta sapaian ere habia desberdin ugari ikus zitekeen. Ani-  
malien mundu alai eta zoragarri bat zen dena. Garazik beste era  
batzuetako animaliak ezagutu nahi zituela komentatu zidan eta  
behar bada Afrika edo Asia ingurura joango zela ere aipatu zuen.  
Baina argi zegoen han zeukan bezain familia atsegina ez zuela  
inon ere osatzerik izango.


Gela barrura sartu nintzen eta bertako bele, xoxo, oilasko, ahate, txantxangorri, eper, usoekin... piska bat jolasten aritu ginen Garazi eta biok. Halako batean leihora hurbildu eta eguna iluntzen hasia zela eta ilargia bere gaueroko bisita hori egitera zetorrela ikusi nuenean, zein berandu zen ohartu nintzen. Garaziri joan beharra nuela adierazi nion. Garazik bere etxean askotan agertuko nintzenaren itxaropena zuela jakinarazi ondoren, bi musu adiskidetsu eman zizkidan eta bere etxetik herriraino eramango ninduen aldapa horretatik jaitsi nintzen, ilargiak gorputz guztia leunkiro laztantzen zidan bitartean.

## **PROSA. B maila**

B.B.B.ko 1. eta 2. kurtsoa,  
L.H.ko 1. gradua eta  
I.E.E.ko 1. zikloa







## **Autobeldurtze prozesua**

Arantxa Mendieta Lasarte  
Sto. Tomas Lizeoa  
DONOSTIA



Nondik ez zekitela, haize izugarri batek alde batera eta bestera mugi arazi zituen. Florence garrasika hasi zen. Robert, ahal bezala untziari heltzen ziolarik, Isabeli begira zegoen. Emakume haren pertsonalitateak txunditurik uzten zuen. Untzia galtzeko zorian zeuden hirurak eta emakume hark hor ziharduen tente itsaso haserreari begira.

Haizearen indarra biziagotu egin zen, azkenik untzia ondoratu zuelarik. Olatu bat gaineratu zitzairen eta itsasuntzia guztiz txikitu zuen. Zeru lainotuaren iluntasunak ito egin zituen, dena ur zen, dena beltz, garrasi eta mundu ilun sakon bat.

Papagaio baten garrasiak esnatu zuen. Eguzkiak min egin zion begietan lehendabizi eta bere gorputz errean ondoren. Ahal bezala zutitu egin zen. Burua nahasirik zuen, non ote zegoen? Untzia, ekaitza, laino ilunen erasoak, oihuak... Ezker-eskubi begiratu zuen eta urrunean Robert-en alkandora urratua ikusi zuen harkaitz artean, eta urrunxeago, Robert bera. Zutitu bezain laister sekulako zirriborroa nabaritu zuen; eguzkiak aurpegian jotzen zion. Robert-engana iritsi zen eta astindu egin zuen poliki. Robertek ez zuen gihar bakar bat ere mugitu. Gorpuari guztiz buelta eman eta oihu histeriko bat bota zuen. Robert-ek burua aizkora batez erdibiturik zuen. Basatiak biziko ote ziren inguru hartan? Zergatik ez ote zuten bera ere hil? Ez ote zuten ikusi? Orain

bere zelatan egongo ote ziren? Irakurria zuen uharte bakartietan gelditzen ziren tribuei buruzko erreportaia bat.

Robert aspalditik zegoen hilik. Noiztik ote zegoen bera konorterik gabe? Eta basatiak berari begira egongo balira?

Gose zen, bero, egarri eta beldur; buruan etengabeko zorabioak sentitzen zituen. Robert-en burua berbegiratu zuen: ez zuen begirik; Florence-k ez zekien basatiak atereak ziren ala animaliairen batek janak: ezkerreko begiko zulotik atera zen karramarroak eman zion erantzuna.

Florence-k bere ingurura begiratu zuen, ez zen inor ageri, dena isilik zegoen eta bere aurrean hondarra eta itsaso amaigabe bat besterik ez.

Pausoak entzun zituen bere atzekaldean. Erreportaian zioen ez zela inolaz ere basatiekin arrazonatzen saiatu behar, haiek harrapatuz gero ez zegoela ihes egiterik; pausoak gerturatzen ari zirela iruditu zitzaion. Robert-en aurpegia begiratu zuen. Robert ez zegoen ordea berari begira. Histeria irribarre bat irten zitzaion Florence-i; Robert-ek ez zuen begirik! Bere aurpegia edozein hurrek mamu bat marraztean sortuko zukeen karikatura tamalgarri batean bilakatu zen. Burua erdibiturik zeukan bi zulo beltz sakonetaraino, lehen begirada samur bat jaso zuten leizezulo isiletaraino.

Pausoak arrastaka gerturatzen; bizkarra eman zien. Harri bat. Azken mementuan bira eman eta harrikada bat jaurtikiko zion, baina eta gezi bat botatzen bazion? Ez zuen uste. Robert-en burua ezin zitekeen gezi soil batez honela erdibitu. Poliki-poliki gerturatzen ari zen gizaki hura. Itzala ikusi zuen, zonbi baten mugimenduak zituen. Guztiz izutu zen. Adorea behar zuen. Basatia ez ikusiarena egingo zuen. Gorputza pare bat metrotara zegoenean, indar guztiz altxa eta harrikada bat bota zion burura.

Oihu bat entzun zuen eta beldurrez hilik begiak itxi eta bira eman zuen gorputz haren azken mugimenduak ez ikustearren.

Segundu gutxitara oihuak amaitu ziren eta lehenago Florence-n bihotzaren taupadak besterik entzuten ez ziren hondartzan isiltasunak berriz ere agintea hartu zuen. Berriz ere bira eman eta harrikada jasan zuen gorpuari begiratu zion. Eguzkia zela eta, basatiaren gorpua ez zuen horren bezturik ikusten, ia zuria baizik. Gelditzen zitzaion lasaitasun pittina bildu eta eskua kopetan jarriz itzal eman ziezaion asmoz, gorpuaren ondoan jarri zen, baliagarri zitzaion armaren bat edo beste zeraman ikus ahal izateko. Tributik bakarrik bidali ote zuten galdetzen ari zitzaion bere buruari gorpua argitasun gehiagoz ikus ahal izan zuenean.

Taupadek bularra hautsiko ziotenaren ustea izan zuen.

Isil-isilik, pausoz pauso eta ingurura begiratu gabe itsas ertzera inguratu zen. Sekulako labarra zegoen eta behean, urru-  
nean, olatuen heriotza isil bortitza entzun zitekeen. Florence-k, bigarren gorpu hila ikusi zuenetik begiak kliskatu gabe, aurrera jarraitu zuen noraezean, azkenik uhartearen isiltasuna urratu zuen oihu bat boteaz bere burua amildegira bota zuen arte.

Gelaren hormetan zehar banaturik zeuden hogeitelaurotik uhartearen bista orokor bat ematen zuten. Besaulkian zegoen gizonak barre egin zuen telebista kamara bati begiratzuz, bere lehen ondorioak zehaztasun maila handia zutela konprobatu bait zuen.

Orduantxe inguratu zitzaion bere idazkaria zen neskatxa ile horia karpeta bat eskuan zuelarik:

—Jauna, amaitu da zortzigarren esperimientua.

Isilune bat sortu zen.

—Ongi, Rose, emaidazu txosten osoaren berri, mesedez.

Neskatoak karpetan zituen anotazioak erreparatu eta gizonari hasi zitzaion:

—«A» deituko dugun gizabanakoa (zuria, metro larogei-tamar, beltzarana eta ile motxekoa) lehenengo iritsi zen uhartera. Konorterik gabe zegoela, zortzi zentimetrotako sakonera zuen ebaki bat egin zitzaion buruan hitzegindakoari jarraituz; honek, noski, heriotza sortu ziolarik.

«B» izena emanen diogun gizabanakoak (emakumea, zuria, metro hirurogei, ilegorria) bi egun eguzkitan egon ondoren, «A» aurkitu zuenean «autobeldurtze» prozesua izena eman diozuna jasan zuen. «C», artean, (emakumea, zuria, metro hirurogei-tamar, ile beltza) gure planei jarraituz eta hiruretan zentzudunena zenez, bi egunetan koba batean egon zen irteera bilatu arte, ezer jan eta edan gabe; bere egoera penagarria zen benetan, ez zen zuzen ibiltzeko ere gai.

«B»-ko, sindromeak jadanik jota, «C» gerturatzen sumatu zuenean, ez zuen begiratu ere egin, zuzenean harrikada bat eman zion eta hil.

Robinson doktorearen ustez, —jarraitu zuen emakumeak— «B» gizabanakoaren jarrera gure aurreko ikerketekin bat dator; beldurrak sortutako erreakzio bat izan zuen eta gure esanak baieztatuz, arrazonatzeko inolako kapazitaterik gabe, «C»-ren nortasuna nahasi eta hil egin zuen. Bere akatsaz ohartzean, zentzua guztiz deuseztaturik, momentu batzu noraezean ibili eta bere burua hil egin zuen.

—Oso ongi, Rose; bide onetik goaz —erantzun zuen Salz doktoreak, emakumeak karpeta ekarri berria gizonaren eskuin aldean zegoen mahai txiki batean zeuden beste zazpiren ondoan uzten zuelarik—. Mendebaldetik bederatzia bat milatara beste untzi txiki bat dator, ondora ezazue. Rose, bederatzigarrena den esperimendu hau amaitzean, geure «autobeldurtze prozesua» ri

buruzko lana bukatu eta Belgiar Psikologoek Urteroko Komisioan aurkeztu ahal izango dut, zoragarria da!


Emakumea irribartsu gelatik irtetzera zihoala, gizonaren azken hitzak entzun zituen:

—Rose, emaizkiozu zorionak Robinson doktoreari azken esperimendu honegatik, eta esaiozu hiru gorpuak besteekin batera gordetzeko. Bihar erreko ditugu.

Urrunean, «Brothers» untziko partaideek haize bolada zatar batek astintzen zituela nabaritu zuten.







## **«Bi egun New-Yorken»**

Katrin Naroa Zabalo Enparantza  
Sto. Tomas Lizeoa  
DONOSTIA



Tanta bat, bi tanta, hiru tanta. Goizeko ordubiak jadanik; gau osoa hemen iragan dut zain eta dirudun, zerri, maltzur, gaizto horiek ez dira beraien gordeleketatik irten oraindik. New York-eko kale gehienak hutsak ageri dira, bizpahiru mozkor izkinetan, zakur zikin galduren bat... eta polizia patruila bat noizbehinka. Denbora luzean hemen, nire «Ford»aren eserleku gogorrean, eserita jarraitu behar baldin badut, zartagin baten itxura hartuko dit atzekaldeak. Hara! Garaje bateko atea gorantz doa poliki-poliki, bi faroak biztuta itsutu egiten naute une batez; irten da azkenik «Cadillac» beltza, barnean txoferra, nire etsairik gogorrena eta bi bizkar-zain dituela. Ai! Erruki zaitut Malone, oraingo honetan ez didazu ihes egingo, denbora luzean egon naiz okasio honen zain. «Cadillac» beltza garajetik irten eta hiritik kanpora irteteko bidea hartu du.

Nire txapela jantzi, gabardina lasaitu, kotxea martxan jarri eta banoa... gangster nazkagarri hori behin betirako harrapatu eta giltzapetuko dut. Argiak biztu ditut; lasai-lasai noa berrogeitamar bat metro atzeraxeago. Ehun metro egin ditu aurrerantz zuzenean; ni berarekin. Gero, eskuinetarantz sartu da; ni atzetik. Berrehun metro gutxi gora behera eta berriz ere eskuinetarantz; ni segika. Piska bat azeleratu du; nik ere bai. Agian somatu du norbait atzetik duela; ez agian, guztiz ziur naiz konturatu dela, ziztu bizian irten bait da jadanik hiriko azken etxeak atzean utziaz. Baina nik ezin etsi dezaket; beraz, nik ere abiada hartu

eta tximistaren antzera alde egin dut. Orain datorren errepidea guztiz txarra eta desegokia da momentu honetan egin beharko ditugun maniobretarako, baina ez dut beste aukerarik.

Euria dagoeneko gogor ari da lanean, haizea ziztuka, ekaitza gainean dugu... gira egin du «Cadillac»ak ezkerretarantz. Begibistaz galdu gabe atzetik noakio. Bide guztian zehar kurbak eta kurbak besterik ez ditugu eman, ez dut oraindik oso ondo ulertzen nola salbatu naizen ere, lasai-lasai hil nintekeen istripu batean. Azkenean karretera on bat, dena zuzen, aurrerantz; baina «Cadillac»ak ez du atzerantz egin nahi eta berriro azeleratu du. Momentu honetan bertan, nire kotxea soinu arraro bat egiten hasi da, zer ote? Kaka zaharra! Egoera ezin okerragoa aukeratu du autoak gasolarik gabe gelditzeko. Hamar metro gehiago egin ditut ezer lortu gabe, kotxearen motorra gelditu egin zait. Niri gertatu behar zitzaidan hau, nori eta niri! Lurralde osoko mafiosorik garrantzitsuena harrapatzeko aukera paregabea izan dut eta traste zahar honek guztia izorratu behar. Ene bada!!

Eskua gabardinako boltsikoan sartu, apurtxo batean bere barrua miatu eta, kaxatxo gorri batetik aterata, bonboi bat sartu dut ahoan, txokolate eta almendradun bonboi gozo bat, zaparrada nazkante hau geldituko ote den zain nagoen bitartean. Trumoi-tximistak aspaldi urrundu dira, sirimiria ere piskanaka-piskanaka baretuz doa. Kotxetik irten, txapela ondo jarri, gabardina lotu eta banoa telefono kabina edo antzeko zerbaiten bila. Oinez, tipi-tapa, hamar minutu egin ditut eta «Jerry's» dioen kartel zahar bat duen gasolindegia aurkitu dut, hau zorrea! Ez dirudi hemen inor dagoenik; hala ere, saiatzearekin ez dut ezer galtzen. Bi pauso egin ditut ateraino iritsi arte, «Kas, kas, kas», «Inor ba al da?» Isiltasuna. Berriro: «Kas, kas, kas!», «Norbait hor barruan baldin badago, arren ireki, emergentzia bat da». Pausoak entzuten ditut barnean. Atearen atzekaldetik: «Nor zara?», «Zer nahi duzu?». «Zera...e...ni...Mike O'Hara naiz, ikertzaile pribatua. Kasu batean lanean ari naiz, baina

kotxea gasolarik gabe gelditu zait hemendik ordu-laurden baterako bidean eta laguntza eske natorkizu». «Laguntza eske diozu?», «Baina..., ba al dakizu zer ordu den?». «Bai, bai. Benetan sentitzen dut; mesedez, etxera itzuli beharra daukat».

Leihoko bi kortinen artetik begiratu du norbaitek han barrutik, handik pare bat minututara gizon zahar, ia-ia guztiz burusoil, garai eta xelege bat atera da bordatxo horretatik. Berari jarraitzeko seinak egin dizkit esku batez, furgoneta ireki, biok sartu eta nire kotxearen bila abiatu gara. «Horixe da!», esan diot nik, nire «Ford» zaharra errepidearen alde batean ikusi dudanean. Autoaren aurrean aparkatu du furgoneta. Ahal izan dugun bezala, nolabait, elkarri lotu biak eta gasolindegirako bidea hartu dugu. Hara iritsi bezain laster, bost dolar eman dizkiot aitona horri depositoa bete diezadan eta halaxe egin du. Eskerrak emanaz bulegorantz bueltatu naiz, gaur gaueko aukera galduari buruz pentsatzen.

Kotxea bulegotik hurbil aparkatu dut eta banao lo piska bat egiteko asmoz. Giltzen soinu apala, danbatekorik ozenena irudititu zait auzoko kale bakarti hezeetan. Nire pauso ritmikoen hotsa zolu bustian, besterik ez dut entzuten. Portaleko atea ireki, isiltasunak berdin-berdin jarraitzen du; eskailerak igo, ez dago aldaketarik; etxe-bulegoko egurrezko atetik iragan eta sukaldeko ordularian laurak direla ikusten dut. Gabardina busti samarra pertxeroan, kapela sarrerako mahaitxoan eta ni, nagoen bezalaxe, ohean etzan naiz, istante batean lo zerraldo gelditurik.

Triiiiiin!!!, Iratzargailua. Ene bada! Hau hots ezatsegina. Buruan mailukadak emango balizkidate bezala sentitu naiz. Baina, zer ordu ote da iadanik? Nola edo hala, begiak ireki ahal izan ditut ordua begiratzeko, burua mahaitxorantz okertu... goizeko zortzirak! Ezin liteke izan; bart gauean eduki nuen lanarekin ez dakit jaiki ahal izango naizen. Ahalegin handiak egin ditut eta eskuineko oina mugitzea besterik ez dut lortu. Hobe

dut hementxe geratzea eta ordu pare batez lo egitea; begiak itxi ditut eta lo «seko» gelditu naiz. Ametsetan hasi naiz, amets zoragarri bat: Malone ikusten dut gartzelan, kaiola baten barnean usteltzen; ni berriz, Hawaii-ko hondartza batean etzana eguzki zoragarria ahalik eta hoberen aprobetxatzen, pina zuku bat eskuineko eskuan dudala eta ezkerrekoan, dolarrez betetako kutxa bat; guzti hau, neska beltzaran eder batzuk hornitzen dutela. Zoritxarrez, amets bat besterik ez da, hala ere, gartzelaren zatia kunplituko delakoan nago.

Leiho zikinetik sartzen den eguzki izpi bat hormako ispi-luan isladatu eta nire oheraino iritsi da. Bi begiak batera ireki ditut kostata, hankak lurrean jarri eta gorputza tentetu dut. Sukalderantz abiatu naiz zer edo zer gosaltzeko asmotan, ordubiak eta bost ordularian; beno, gosalduek ez, baina bai gosea kentzeko. Hozkailua ireki dut, erdi hutsik dago. Sagar bat hartuko dut eta armairutik zenbait gailera. Mahai aurrean eserita, sagarra zuritzen hasi naiz. Buruko pentsamenduak guztiz nahastuak dauzkat, ez naiz nire lanean kontzentratzen. Adiskideak, haurtzaro eta gaztetako ekintzak, jolasak, borrokak... gauza arraroak datozkit burura. Bat batean, triiin!!! Telefonoa; berriro, triiinin!!! Aulkitik altxa naiz eta telefonoa hirugarren aldiz deika ari denez, hartu egin dut. «Nor da?». «Kaixo, Mike. Jeff nauzu. Badakit Malone-n atzetik aspaldian zabiltzala eta orain, hura harrapatzeko aukera ezin hobea daukazula esateko deitzen dizut. Droga salmenta bat egiten ari da bere iatean, eroslea nire gizon bat da. Nahi baldin baduzu, laguntza emango dizugu. Zer deritzozu?». Jeff nire lagunik onena da, txikitandik elkar ezagutzen dugu eta oso ondo konpontzen gara biok. Bera polizia egin zen, komisaldegi bateko buruzagia da eta elkarri laguntzen diogu. «Zergatik ez bada? Hemendik ordu-erdi barru portuko bigarren atean ikusten bagara, zer moduz?». «Ederki!! Hogeitamar minutu barru elkartuko gara». Eta besterik gabe telefonoa eskegi dut.

Azkar asko arropa erantzi, dutxatu eta jantzi garbiak jantzi ditut. Gaileta batzuk hartu ditut biderako. Eguraldi ona egiten duenez, ez dut gabardinarik eramango. Kapela eta «Amerikana» jantzi, kotxeko giltzak ahaztu gabe hartu eta hor noa!! Korrika jaitsi ditut eskailerak eta kalera iristean konturatu naiz, non utzi ote nuen atzo kotxea? Etxe inguruan zenbait buelta eman eta aurkitu dut. Barruan sartu eta egin dudan lehenengo gauza gasolarik duen frogatzea izan da. Badauka. Hortaz, banoa zerri hori harrapatzera. Hamabost minututan iritsi naiz. Jeff-ek instrukzioak eman dizkit eta bere bost gizon, bera eta ni Malone-n iaterantz goaz. Bi bizkar-zain daude kanpoan, biak atxilotu dituzte iskanbila handirik sortu gabe; aurrera jarraitu dugu, beste «gorila» horietako bat lurrera bota dugu, zazpiron artean erraz! Tira-tira, orain niri dagokit lana. Atearen ondoan jarri naiz, honi ostikada bat eman diot, boltsikoan nire arma bilatu eta Malone-i apuntatu diot.

Jeff-en gizona alderatu egin da polizia plaka erakutsiaz. Malone-k pistola bat atera du eta nik, berak erabili baino lehen, bularrean tirokatu dut.


Jeff sartu da ondoren bere bost gizonekin. Denok gangsterrari begira geratu gara, zurbil dago. Bere bi eskuak bihotz aldean jarri ditu eta zerraldo erori da lurrera. «Azkar! Anbulantzia bat!» garrasi egin dut. Baina iadanik berandu da, medikuek ezin ahal izan dute ezer egin, iritsi direnerako Malone joana zen.

Arratsaldeko laurak eta laurden, iate hartan gertatu denaren deklarazioa egin dut eta kapela eta «Amerikana» soinean ditudala txaketako patrikan sartu dut, bertatik kaxatxo gorri bat atera eta txokolate-almendradun bonboi bat eramanez.

Eguneko lehen euri-tantak kotxeko kristaletan.







# **Galdutako bihotzaren bila**

Leire Goitia Pastor  
Kirikiño Ikastola  
BILBO



Eskua hartu zidan, eta une batez ortzian zegoen izarrik txikiena ere nire eskuaz harrapatzeko gai nintzela sentitu nuen. Bere begiak txingarrak ziruditen esku horren berotasuna nabaritzen nuen bitartean. Euri tantek gure aurpegiak jotzen zituzten, gogorki, nire bizitzako unerik zoragarriena apurtu nahi izango balute bezala. Baina neuk ez nuen euririk ikusten, ez hezetasunik sentitzen. Amak momentu hartan ikusi izan banindu, busti-bustirik nengoela, gorriak ikusi izango nituzkeen «Ama, ama, non zaude? Behar zaitut». Bere gorputza inoiz baino ederragoa iruditu zitzaidan, eta nirea inoiz baino biziagoa. Ezpanak mugitu zituen, zerbait xuxurlatzeko asmoz, baina nik begirada adierazkor eta bigun bat zuzendu nion. Irribarre bat bota zuen, ezta baino gozoagoa, itxasoa baino ederragoa, nire hitz gabeko kodigo hura ulertzen zuela aditzera eman nahian. Bere usaina berezia zen. Munduko lorerik usaintsuenak lorategi eder batetan elkartuko balituzte, hauen usainak ez luke berarenarekin antzekotasunik izango. Ez zait inoiz ahaztuko. Nik ere irribarre bat eskaini nion, bion sentimenduak bat zirela jakin zezan. Bihotz zabaleko pertsona naizela esaten duten arren, nire sentimenduak azaltzea oso zaila egin zait beti, eta askotan ezinezkoa. Baina une hartan, barnean nuen poztasun guztia nolabait adierazi behar nuen. Poliki-poliki, portzelanazko gorputza banu bezala,

niregana hurbildu eta besarkatu ninduen, bigunki, ni apurtzeko beldurrez, edo une gozo hura mugimendu azkar baten bitartez apurtzeko beldurrez, beharbada. Bere aurpegia nirearen alboan zegoen, oso hurbil-hurbilegi, Marik esango lukeen bezala «Ah, Mari gixajoa, zure bekaizkeriak Jaunak eman zizkizun dohaiak estaltzen ditu, maitea». Gure ile bustiak haizearekin nahastatzen hasi ziren, urrunetik buru bakardun gorputz bat ikus zitekeelarik. Nire eskuak bere lepoan zeuden, baina airea laztantzen nengoela sentitzen nuen, aire paketsu eta usaintsua. Gure bihotzen mugimendua arintzen zihoan, bata bestearen bila irtetzeko asmoa azalduz. Duela sei urte txirrindu berria oparitu zidatenean ere ez nuen halako urduritasunik nabaritu. Bai, benetan urduri nengoen, baina pozik, oso pozik, inoiz baino pozago. Bere arnasa ere arintzen ari zen, bihotzaren erritmoa lortzera bultzaturiko maitasun oihuaren adierazle. Begiak itxita nituen, eta hauek zabaltzeko ahalegin biziak egin arren, ezin izan nuen barneko adorerik kanporatu. («Udaberriko bedartzak begi hoien orlegia ikusterakoan bere erregin bihurtuko zintuzke»). Usain hura, beti usaina. Amarena ere berezia zen, baina oso zaila egiten zitzaidan (eta egiten zait) hura gogoratzea «Ama, zergaitik utzi ninduzun bakarrik, gorrotoz beteriko mundu honetan?». Ez dakit zenbat denbora igaro zen nire bihotzak berriz ohizko erritmoa hartu arte. Eguzkiak ez zuen bere izpirik agertu nahi, baina nire barnean berotasun haundia sentitzen nuen. Dudarik gabe, maitemindurik geunden, betirako, gure bihotzek heriotzaren muga beldurgarria garaitzeko gai zirela uste nuelarik. Baina gau hartan, trumoi gogor batek esnatu ninduen, eta indar ezkutu batek nire bizitzaren muina zapuzteko prest zegoela ulertu nuen «Banekien, ama, banekien, eta ez nion ezer esan. Erruduna naiz, bai». Euri madarikatua.

Hamazazpi urte zituen, eta nik hamalau. Behin eskutitz luze bat bidali zidan, maitasunez beterik, eta Mariri erakutsi nionean «zergatik erakutsi nion?», hamaika galdera egin ziz-

kidan, neu zirikatzeke asmoz. Galderak, gaur eguneko bizitzaren oinarria. Gehienek ez dute erantzunik, baina gure mundu kaxkar honetako jendeak ez du ulertzen nola gerta daitekeen hau, eta edozein zentzugabekeria asmatzen du galdera bakoitzak bere erantzuna izan dezan. Ez, nire galderak ez du erantzunik, eta ez dut uste inoiz izango duenik.

«Gure maitasunak ez du mugarik, etorkizuna bera beldurrez beteko litzateke zoriontasun hau ikusiaz».

Bai, hala uste nuen. Baina orain hemen nago, bakarrik; Ah, Jainkoa, bere irudia buruan bueltaka dudan bitartean negar egitea ezinezkoa egiten zait. Zergatik, zergatik, zergatik? «Galdera gehiegi egiten zaude, laztana». «Baina ama, nik dena jakin nahi dut». Bai egun ederrak horiek. Gaztea zen, elkar maite genuen, ikasle bikaina zen, beti hobetu nahian. Zergatik? Norbaitek bila biezat zentzuz beteriko erantzun bat. Ez, erantzunik ez dago. Ortziko izar txikienaren argia ahulduz doa. Iluntasuna.

Hilabete bat igaro dela esaten duten arren, niretzat mende oso bat igaro da. «Zatoz, maitea, berak begiko zintuen, eta badakit bere gauzarik maiteenak eramatea atsegingo zenukeela». Baina zertarako. Zertarako liburuak, zertarako diskak, zertarako egunkaria bera inoiz ez bada itzuliko, andrea? Bere ama gixajoa. Nirekin beti oso ondo portatzen zen, ene ama balitz bezala «Zure hutsunea nabaria da, ama, eta maitasun pixka bat beharrezkoa da harrizko bihotzik hotzenak ere aurrera egin dezan». Hilabete bat. Nire bizitzako hilabeterik tristeena, luzeena, barkartiena. Maite ditudan pertsonak niganik urruntzeko joera dute. Zergatik? (Ba al dakit zein den galdera honen esanahia?). Baina oraingo honetan ezberdina da. Trumoiaren mezua ulertu nuen, eta ez nion ezer esan, zorotzat hartuko nindukeen bildurrez. Koldar hutsa naiz. Txikitan ere, koldarkeriak bakartasunera bultzatzen ninduen, beste haurrek beren jolasetan ziharduten bitartean, maltzurkeriarik gabe. Orain Mari dut nire on-

doan, baina bihotzak gure artean adiskidetasunik ez dagoela oihukatzen dit. Nola kontatuko dizkiot nik neure sentimendurik minenak, Berari buruz hitz egiten diodan bakoitzean arima hozten bazait? Nola azaldu txingar, trumoi edo izarren konturik gauza hauek ulertzeko gai ez den pertsonari?


Nire bizitzaren iturria, zure begiak, maitasunarenugarra, zure berotasuna: zeu gabe, zeru beltzak itsasoaren heriotz-seinalea dirudi.

Heriotza. Geu ginen nagusi, baina zintzo jokatzen genuen; hark, oster, bere tresnak ongi zorroztu ondoren, bihotza kendu zizun, gogortasunez, niri bezala. Oraindik bere taupadak entzun ditzaket, baina lehengo ozentasun hura galdua dute: ahulak dira, barnean dudak kartoizko bihotzak egin dezakeen guztiaren adierazgarri. Hodei beltzek itsaso hilaren usaina dakar, eta zakurrek, euren uhuriez gaua apurtzen dute, bibolin tristen soinua ozen-duz. Euria da.

Barka nazazu, ama. «Adorez jokatu behar duzu, edozein arazo konpondu dezakezula pentsa ezazu. Burua altxaturik eraman ezazu beti». Adorea bukatu zait. Munduan zoriontsu izateko ahalmenik ez dudala ulertzerakoan gertatu da. Bera beste aldean itxaroten dagokit, esan dit (ametsetan hain gustokoa nuen ahotsa entzun dut, bai). Bizitza berriaren giltza nire eskuetan dago, gorrotoa eta maitasuna mugatzen dituen atea irekitzeko prest.

«Heriotzak lapurtu zidan bihotzaren bila noa».

Nork irakurriko du? Inork ere ez, beharbada. Balkoian hotz da, baina bapatean maitasunaren beroa sentitzen dut. Bai, oso hurbil nago. Gauaren iluntasunaren erdian argi haundi bat ageri da, zerbaiten hasiera markatzeko asmoz. Bere usaina haizearekin nahastaten da, behean zakurrek zaunkaka diharduten bitartean. Bi minutu beranduago, saltoa eta ixiltasuna.



## **Gau hartan... iluntasunean**

Laura Redondo Pares  
Sto. Tomas Lizeoa  
DONOSTIA





Horma goibel haietan zehar irristatzen ziren ur ttantta he-  
zeek lurraren kontra ematen zuten golpe ritmiko aspergarri hura  
entzuten neraman goiz osoa. Iluntasun hartan, hotzikarek zirra-  
razten zidaten gorputz osoa goitik beheraino, pentsamendu eta  
gogoetak nire burutik aldenduz. Ezker begi eta masaila haziak  
nituela somatzen nuen, odola bertan burrunbatzen bait zitzaidan  
gogorki, konortea galtzeraino. Arrats osoa ere horrela igaro  
nuen. Ez urik, ez janaririk. Ez bisitarik, ez argirik. Itxaropena  
galdu nuen une berean, giltza hotsa aditu nuen nire zorabiotik  
kanporatzen ninduelarik. Uniformedun gizon sendo eta serio  
bik, besoetatik heldu eta arrastaka argialderantz eraman nin-  
duten. Bat batean, argi mingarri batek begiak urratu eta itsierazi  
zizkidan nire gogoaren kontra. Ez nituen ireki, baina jende ugari  
zebilela banekien. Ahots hotsak entzuten nituen, urrutian, han-  
txe bertan egongo ez balira bezala. Ate bat nere alboan isten  
entzun nuen eta... isiltasuna. Pertsiana bat jeitsi zuten eta argia  
desagertu egin zen magia izango bailitzan. Lehen hainbeste  
desiratzen egon nintzen argiak beldur ematen zidan. Astiro ireki  
nituen begiak, ez nekien non nengoen ez eta nortzuk ziren han  
zeuden gizon dotore haiek ere. Korbatadun ilegorri bat mintzatu  
zitzaidan, baina ez nion ulertzen edo ez nion aditzen. Berrito  
zorabioka hasi nintzen eta lehen ezker aldean nuen mina, buru  
guztira zabaldu zitzaidan. Ezarri ninduten aulki gogor hartan

ezin nintzen gehiago egon eta besterik gabe lurreratu egin nintzen.

Begiak ireki eta sapai zuri-zuri bat ikusi nuen, izugarrizko hodei baketsu baten antzera. Ez nekien non nengoen, baina ziur nengoen hura ez zela gorroto nuen espetxea. Leiho zabal batetik sartzen zen argi disdiratsuak, gela bitxi eta lasai hura argitzen zuen osoki. Maindire fin eta txuri batez estalirik nengoen eta derrepente, ni konturatu baino lehen, oroitu nintzen. Hezurretarainoko beldurra sartu zitzaidan eta jaiki nahian hasi orduko buruak eztanda baten antzera egin eta zast! Konortea galdu nuen.

Gose ikaragarriarekin esnatu nintzen hurrengoan. Lasaiago nengoen, buruko min latz hura gabe, baina non eta norekin nengoen jakin gabe jarraitzen nuen. Erizain panpox bat sartu zen eta aspaldi hartan goxoki hitz egiten zidan lehenengo pertsona izan zela uste dut. Galdera batzuk egin zizkidan, inongo presarik gabe, eta bazkari urintsu bat ekarri. Maitagarria zen benetan eta nirekin primeran portatu zen. Egunak mantso igarotzen ziren eta irakurri nahiz irratia entzuten nuen aspertzeke. Burua eta masaila sendaturik nituen jadanik eta laister ateratzen utziko zidatela esan zidan batean, korbatadun ile-gorri harroputz bat sartu zen gelara. Begi ilun hotzak zituen benetan, inpresionatu nindutenak. Bere aurpegia ezaguna nuen, baina ezin oroitu nor arraio zen gizaseme hura. Urduri jarri nintzen eta urduri nagoen guztietan bezalaxe, izerdi ttanttak kopetan zehar erortzen somatu nituen:

—Carl Simons nauzu —ahots serio batez mintzatu zitzaidan, kikildu nahian edo— polizia estatala, 785 distritokoa.

Egia esan, niri bost axola zitzaidan nor zen tipo nazkagarri hura, non lan egiten zuen eta are gehiago zer distritotakoa zen, zeren ni eta suburbioetako jendetza guztiak, asko bait ginen auzo txiro haietan bizi ginenak, zonaldetan banatzen genuen hiria. Kaleko jendea ez zen eskolara joaten, ez zuen jatekorik eta nola

arraio nahi zuten txotxolo horiek pailazokeria haiek ulertzea? Segituan mesfidatzen hasi nintzen, traje dotore grisaska zeraman soinean eta urrezkoa izango zen erloju izugarri bat:

—Ez dakit oroituko zaren —jarraitu zuen keinurik egin gabe— baina 785 distritoko Harlam-eko komisaldegian igaro zenuen egun oso bat hona etorri aurretik. Zera... gure gaiarekin jarraituko bagenu...

Pentsamendu bat etorri zitzaidan burura, baina oso urrun eta nahasian gogoratzen nuenez, saiatzeari utzi nion. Begietara zuzenki begiratzen ausartu nintzen eta orduantxe konturatu ginen ez ginela ezertan ere ados jarriko. Nere begi gris zoragarriak —neska batek esan zidan honako hau— bere beltz hotzekin topatzean sortu zen tximista, ezingo nuen mila hitzekin ere esplikatu ahal izan. Mespretxuz beterik begirada hotza bota eta harro hizketan jarraitu zuen:

—Begira, Steve, ez zaitugu giltzapean sartuko laguntzen badiguzu. Ez duzu zer galdurik, mutiko.

Baina nik erantzun gabe jarraitzen nuen eta nazkatzen hasi zela uste dut, zeren korbatako gorapiloa zertxobait askatu, eskua aurpegi zuri koloregabetik pasa eta ile gorriska atzeraka bota zuen hasperen sakon bat botatzen zuenaz batera.

—Hara, argi eta garbi hitz egingo dizut. Zure laguna, Randy, hilik suertatu zen tiroketan eta Malcom giltzapetu dugu polizia bat zauritu ondoren. Besteek alde egitea lortu zuten, baina zaude ziur harrapatuko ditugula, inork ez digu alde egin oraindino eta ez dira izango mukizu horiek lehenak.

Lastima polizia hura hilik ez suertatzea. Malcom tiratzaile trebea zen benetan, baina Harrison aberats lodikote haren etxe atariko iluntasunean ez zen zaila huts egitea. Tamalez, polizia horiek bai asmatu zutela Randy gizajoa hiltzen. Randy primerako laguna zen, beti brometan edonoren umorea piztuz eta bere

zorigaitzak gordez. Hamaika aldiz ikusi nuen bere eskuin besoko tatuaiia ederra. Jaungoikoa! Zapelatz burua garrasi bizian, beti iruditu izan zitzaidan besotik alde egingo ziola noizbaitean. Momentu hartan zapelatzarena ez, baina bai Simons-en deiadarra entzun nuela belarria zulatzen, ohetik ia erortzen nintzela.

—Arraioa! Orduerdi daramat zurekin hitzegin nahian eta ahotzar hori ez duzu ireki ere egin! Zaila jarri nahian edo? Zuretzat okerrago, zure beste bi laguntxoek izen-helbideak eman ezean, 7 urte inguru eroriko zaizkizu gainera. Zeuk ikusi. Zu eta zure klaseko jendearekin tratatzea ez da zaila. Denak berdinak zarete, ijitook. Pentsa ezazu ongi, ez du merezi lagun horiengatik bizitza alferrik galtzea. Laister arte.

Hori esanaz gelatik amorraturik irten zen, atea behintzat goxoki itxi gabe. Buruko mina nuen berriro ere, sapaia ikusten nuen nere gainera zetorrela, biraka, Simons-en ile gorriska erdian zegoelarik, biraka hau ere. Gero, Randy-ren tatuaiak, Malcom-en ile kiskur-kiskurra, Harrison-en iturri zoragarria, bitxiak, zakur baten zaunka...

Begiak neka-neka eginda hertsu nituen eta lasaitu egin nintzen, baina gogoetetan jarraitu nuen ni neu ohartu baino lehen.

Gau hertsia zen, izarrik gabeko horietakoa. Putzu zabal ugari zeuden eta farol baten argipean, bost itzal isladatzen ziren noizbehinka kale zulo batzuetan. Hauek bukatzearekin batera jakin genuen «Aberats» aldera iritsiak ginela. Hauxe zen hiri osoko lekuri dotoreena, dirudunak bizi zireneko etxeak hemen zeuden. Kaleetan putzurik ez, errepideak asfalto berria bait zuen. Etxe dotore handiak alde guztietatik inguratzen gintuzten auzo handiospetsu hartan barneratzen gindoazen neurrian.

Gutako zaharrena, Malcom, aurretik zihoan, beldurrik gabe nik uste, ziur eta zuzen bait zihoan burua bueltatu edo zalantzarik gabe. Kale bikain ugari zeharkatu ondoren, Harrison ospe-

tsuaren etxera ailegatu ginen. Denak ahozabalik geratu ginen bertan ikusitakoarekin. Arraioa! Aurreko atearen parean, iturri eder zoragarria zegoen. Hiru iturburu zituen, lehoi ahotik irtetzen ur gardenak bidexka bihurri bat egin eta gero desagertzen zelarik.

Lehenengo inpresioaren ondoren, planari ekin genion. Lord-ek, ala deitzen genion bere handi-mandi itxuragatik eta Randy-k kanpoan itxaron zuten, bada ez bada. Malcom, Willy eta ni, etxera iritsi ginen. Leiho bat bortxatu ondoren, Malcom-en atzetik sartu nintzen etxe barrenera, Willy-k leihoari eusten zion bitartean alarmak jo ez zezan. Baina hara non deabruko zakurtzar bat gainera etorri zitzaigun zaunka eta orroeka. Beti pentsatu izan dut Willy txotxolo hutsa zela, baina Jesus! Txakurra ikusi orduko hanka egitea ere leihoa bertan behera utziaz! Eta, noski! dioxozko alarmak jo zuen, Malcom-ek pistola atera eta zakurra hiltzen zuen bitartean.

Korrikari eman genion nondik gindoazen jakin gabe. Lehen poliki ikusitako etxeak, korrika batean pasatzen nituen, polizia iritsi baino lehen hanka egin nahian. Ez dakit okerreko bidea hartu genuen edo ez, zeren momentu batean, mila sirena hots eta hainbat patruila-berebil etorri zitzaizkigun ondora... Gainera jauzi egin zidan batek eta lurrean bueltaka ibili nintzen. Mugitzera ere ez nintzen ausartzen, tirokatuko ote ninduten beldurrez. Tiro hotsak, garrasiak, sirenak... dena nahasian, burua lurretik altxa gabe aditzen nuen. Geroago, askoz geroago jakin nuenez, Malcom gartzelaratua, Randy hilik eta besteen bila zebiltzan. Benetan zein gaizki irten zitzaigun gure lapurreta hura!


Lotan geratu nintzen, horrenbeste pentsatzearekin, neka-neka eginda. Simons horren bisitak zer pentsatua eman zidan. Tipo gogorra zirudien eta ziur nengoen, nahi zuena lortu ondoren zulora sartuko ninduela.

Bi egun lasai igaro ondoren, ilegorri korbatadunak bere sudurra nere gelan sartu gabe, bi morroi sartu zitzaizkidan gelara eta galdeketan hasi. Azken oportunitatea eman nahi zidaten. Nik sormutua banintz bezalaxe, ez nuen ahorik ireki, azkenean galderak alferrik egiteaz aspertu eta jantzi erazi bezain laster, hamar urte erori zitzaizkidan. Lapurretagatik, poliziari erresistentzia jartzeagatik eta kolaboratzeari uko egiteagatik. Bost axola niri. Ez dira berearekin atera nahiz eta ni barnean sartu.

—Patoria! Patoria! Ea alferrok, kanpora!

Ahots latz batek nere idazketatik kanporatu egin nau. Atezain uniformeduna da, patoria irteteko ordua dela esanaz. Nire autobiografiako koadernoan ordu t'erdiz lagatu beharrean aurkitzen naiz, aire freskoa arnastu eta eguzki izpiak gorputzean sentitu ahal izateko. Gelako erdi iluntasun hartatik atera eta patoria eramaten duen atea pasa ala, argi mingarri batek begiak urratu eta itxierazi dizkit nire gogoaren kontra.

## AMAIERA



## **Iraganarekin topo egitean**

Amaia Ormaetxea Irleta  
Sto. Tomas Lizeoa  
DONOSTIA





«Hiltzea gaitz da; gaitzago bana,  
maite uken, eta ez maite izana»...

OIHENART

Udako egun bero bat zen. Aurreko egunean telebistak esan bezala, Saharatik etorritako hego haizeak tenperatura asko igo erazi zuen. Hondartza ondoko termometroak 40°C erregistratzen zituen, baina noski, geroxeago ikusi ahal izan nuenez, beti bezala, gaizki zebilen.

Oraindik bost minutu gelditzen zitzaizkidan, baina zer egin nezakeen? Itxaron. Ez nuen inolako erremediorik. Bira eman eta hondartzan zegoen jende aldrari so gelditu nintzaion. Nola ibil zitekeen atso hura bikiniaren goiko piezarik gabe? Ulertezina; gazteoi, gure gorputza erakusteko garai egokienean gaudenean, lotsa ematen digu eta gero, emakume zahar hura...

Eta Asier? Nola konponduko ote zen orain? Lehen, istripua eduki aurretik beti hondartzan geunden, goizeko hamaiketatik hasita, eguzkia estaltzen zen arte; baina orain?

Ederki asko gogoratzen dut egun hura, lehen musua eman zidanekoa. Udara zen eta beti bezala hondartzan geunden egun-pasa. Ainhoa, Aitor, Oihana, Jon, Nerea eta Ibai etxera joanak ziren, beraz, bera eta ni... biok bakar-bakarrik geunden. Jadanik

bost hilabete generamatzan koadrilan ateratzen, ihauteri egun hartan guregana dantza eske etorri zirenetik. Gau hartan bertan bota nion begia Asierri, eta gero esan zidatenez ni ere berari atsegina iruditu nintzaion. Eta arratsalde hartan, eguzkia haitz artean sartu ondoren, hondartzan bakarrik gelditu ginenean... hantxe esan zizkidan lehen maitasun hitzak eta egun hartantxe eman zidan denoi ahaztezina egiten zaigun lehen musua.

Baina orain, kamioi hark hankak zanpatu zizkionetik, dena aldatu da. Ospitalean zegoenetik ez nuen ikusi, berak ez ninduen deitzen. Argi esan zidan gurea bukatua zela eta ez ninduela gehiago ikusi nahi. Hasieran ez nuen sinestu, are gutxiago ulertu; gero, ordea, hilabeteak iragan ahala, niregatik egiten zuela konturatu nintzen. Esatea gogorra bazen ere, hamazazpi urterekin bizitza osoa aurretik neukan eta gurpildun aulki batean betirako egon behar zuen mutil bati loturik bizitza hori iragatea latza zen benetan. Bai, behin baino gehiagotan nereko hutsa nintzela pentsatu nuen, baina... gogoratzen nuen bakoitzean... agian, ezin izango zuen ez eta haurrik eduki ere, eta nik ondo bizi nahi nuen, ume eta guzti...

Negar malkoak begietara zetozkidala konturatzean, itsasoa begiratzeari utzi nion, berriz ere bira eman ez. Sakon arnas hartu eta betazalak igo nituenean... han zegoen bera!

—Kaixo! —esan zidan betiko begirada goxoa eskainiz.

—Epa! —erantzun nion haren agurrari, nire harriduratik oraindik irten ezinik.

Oso une txarra pasa nuen, ez bait nekien hari musu pare bat eman ala ez. Zutik egon izan balitz bai, baina han eserita... burdinezko aulki hartan...

—Horrela agurtzen al dituzu zure lagun zaharrak? Ez ote didazu musurik emango?

—Barka —eta nire bizkarra okertuaz haren burua besarkatu eta bina musu eman genizkion elkarri—. Barka, baina zu ikus-teak harritu egin nau, ez nuen uste dagoenekozen hemen egongo zinenik; denbora asko al daramazu hor?

—Bizpahiru minutu besterik ez —erlojura begira eta zaz-pirak eta bost zirela ikusiaz.

—Eta nolataz ez nauzu zure presentziaz oharterazi?

—Zure edertasuna kontenplätzen aritu naizenez, denbora-ren nozioa galdu dut.

Masailak gorritzen hasi zitzaizkidala konturatu nintzen, Asierrek beti bezain balakagarri jarraitzen zuen, eskerrak uda zela eta ordurako beltxaran samarra nengoela, bestela...

Egoera hura oso bortitza iruditu zitzaidan, bera han behean eserita eta ni, han, zutik, nora begiratu jakin gabe. Bat batean, ideia zoragarri bat bururatu zitzaidan:

—Aizu, Asier, bero honek egarritu egin nau, joan gaitezen zerbait hartzera.

Gehiegi ibiltzea ere ez zitzaidan komeni, ez bait nuen ezer konpontzen lehen bait lehen esertzen ez banintzen, eta han bertan zegoen terraza bat seinalatu nuen.

Iritsi ginenean, hobeto sentitu nintzen, orain ez bait nuen beherantz begiratu beharrik. Baina... zein gaiztoa nintzen, zein nerekoia, nola pentsa nezakeen une hartan ni ondo ote nengoen, Asier hain gaizki pasatzen arituko zen momentu hartan.

—Eta nola doakizu bizitza? —galde egin zidan elkarrizketa nondik hasi jakin gabe.

—Ondo —esan nion— beti bezala. Eta zu? Zer moduz konpontzen zara?

Zerbitzaria etorri zitzaigun:

—Zer hartuko duzue?

—Nik garagardo bat eta zuk?

—Mmmm... —esan nuen zalantzaz— Coca-Cola bat, mesedez.

—Zerbait gehiago?

—Ez, mila esker —erantzun zion Asierrek bere irribarre goxo harekin— Non gindoazen?

—Baaa...

—A bai! Nire bizitzaren berri jakin nahi duzu.

Bere hitzak buruaz baieztatu nituen.

—Tira ba, ez daukat asko esaterik. Badakizu iaz aitarekin aritu nintzela lanean.

—Bai, bai, aroztegian istripua eduki aurretik ere bazenbiltzan lanean. Oh, barka! —konturatu nintzen bat batean.

—Lasai, ez da ezer, dagoeneko ohituta nago eta errealtatea onartzen ikasi dut.

—Bai, baina...

—Ez, ez, lasai, ahaz ezazu.

Orduantxe zerbitzaria itzuli zen.

—Garagardoa zuretzat eta Coca-Cola andereñoarentzat —esan zuen bakoitzaren ondoan baso bana jarriaz.

—Hirurehun eta berrogeita hamar.

Nik eskua sakelean sartu nuen.

—Tira, tira, nik ordainduko dizut.

—Ez ba...

—Baietz —esan zuen bere eskuaz nirea helduz.

—Eskerrik asko —erantzun nion.

Hark, irribarre batez, dirua eman zion zerbitzariari.

—Mila esker —eta hau esanaz gainerantzeko mahaiak zerbitzera alde egin zuen.

—Tira, nirearekin jarraituaz, zer jakin nahi duzu, istripua gertatu zenetik hona zer egin dudan?

—Hala da —erantzun nion lotsaturik.

—Ez zaitez lotsa —eta eskubiko eskua luzatuz masaila txamurkatu zidan— oraindik ere, hondartzan bakarrik gelditu gineneko arratsalde hartan bezala, gorritu egiten zara.

—Egia diozu —erantzun nion edalontzia begiratzuz.

—Ondo da, jarraitu egingo dut. Kamioiak harrapatu nindueanean, ondo dakizun bezala, ospitalera joan behar izan nuen; bertan, hilabete oso bat iragan erazi zidatelarik.

—Gaizki pasako zenuen, ez al da hala?

—Bai, arrazoia duzu, oso gaizki pasa nuen; batez ere elbarriturik geldituko nintzela esan zidatenean, ezin izango nuela berriz ere ibili, futboleant aritu, igeri egin... betirako traste honi loturik egon behar izango nuela. Ikaragarria izan zen, ez nuen inor ikusi nahi, nire gorputzaz, hobeto esanda, elbarritasunaz lotsatu egiten nintzen, ez zitzaizkidan gogoko senideek eta lagunek egiten zenizkidaten ikustaldi haiek. Umore txarra eta gorrotoa nitaz jabetu ziren.

—Ulertzen dut; nik ere, ziur aski, zuk bezala jokatuko nukeen egoera horretan.

—Bai, agian bai. Baina, tira, bizitza aurrera doa eta jadanik hiru bat hilabete iragan dira zorigaiztoko egun hartatik eta orain, elbarritasuna onartu dudanetik, askoz ere hobeto nago. Jadanik hasi naiz aitarekin berriz ere lanean, eta nahiko ongi moldatzen naiz, aulki madarikatu honetan egon behar badut ere.

—Behar bada, poliki-polki, telebistan agertzen diren filmeetan bezala, makuluekin ibiltzen ikasiko duzu.

—Ez, hori elbarritu batzuk besterik ezin dezakete lortu, eta, zoritxarrez, ez da nire kasua, hankak bi trapu zahar bezala bait ditut zintzilik, nik ez ditut ez eta nabaritzen ere.

—Tira, hanka sartu besterik ez dut egiten.

—Berdin da, zure barrenetik datorren edozer, mingarria izanik ere, goxo bihurtzen da zure ezpainenetan.

—Berriro gorritzea lortu duzu.

—Barka, baina ezinezkoa zait zure aurrean egonik lorerik ez botatzea; poeta izango banintz, zu nire «musa» izango zinateke, nire inspirazio iturria; —esan zidan txantxetan— horrez gain, zu lotsatzea asko gustatzen zait, dena den, nahi ez baduzu ez dut horrelakorik berriz ere esango.

—Asko eskertuko nizuke —tomate bat bezain gorri.

—Aizu, kontutan izan beharko duzu oso zaila egiten zaidala, emango didazu bukaeran saritxoren bat, ez al da horrela? —esan zidan begikeinu batez.

Une hartan, bere begirada nirearekin gurutzatu zen eta orduan, errudun sentitu nintzen. Begirada hark oraindik ere maitasuna igortzen zuen, gaztetako maitasun sutsu itzalgaitza. Eta haren irribarreak maitatzen jarraitzen ninduela esaten zidan, elkarrekin iragan genituen egun zoragarri haien adierazgarri ezin hobea zen.

Baina, zer egin nezakeen? Nola esan niezaiokeen oraindik maitatzen banuen ere, ez zela gauza bera? Ez nengola nire bizitza horrela sakrifikatzeko prest? Berarenganako sentimendua aldatu egin zela, eta orain maitasuna erruki bihurtzen ari zela; baita bera laguntzat nahi nuela ere, ez, ordea, senargaitzat?

Orduantxe, zer esan ez nekiela nengoenean, tabako usaina nabaritu nuen eskubi aldean, zigarro beltzaren usai sarkorra. Gora begiratu eta Iker zela konturatu nintzen. Bihotzak salto egin zidan.


—Azkenean aurkitu zaitut, ez al ginen zazpi t'erdietan elkartzekotan gelditu? —eta burua makurtuz ezpainak musukatu zizkidan.

Guztiz larri, Asier begiratu eta haren begiak malkoz beteta zeudela ikusi nuen, baita Iker gorrotoz begiratzen zuela ere; orduan, bere bihotzak berea nintzela oihukatzen zuela nabari izan nuen.

Baina, zer egin nezakeen nik?







**«Bizi»**

Estitxu Zubeldia Aierbe  
Xabier Zubiri B. I.  
DONOSTIA



Beti bezala, goizeko zazpiretan jaiki nintzen ikastetxera joateko. Nire begirada ispilurantz joan zen, baina berehala al-  
dendu nuen gorputz lodi eta higuingarri bat ikustean; hanka  
haragitsuak, sabel puztua, bular handiak eta beso bigunak...  
ispiluan agertzen zen gorputza, nire gorputza zen, hainbeste  
gorroto nuen gorputza.

Mehetzeko bide asko erabili izan arren, ez nintzen mehe-  
tzen, eta hain gustoko nituen galtzak ezin nituen jantzi.

Gosari bezala sagar bat hartuta, etxetik irten nintzen, baina  
etxe ondoan zegoen gozotegi batetako erakus-leihoan zeuden  
txokolatzeko gozoak eta esnegainezko opiltxoak ziren nire ara-  
zoaren errudun handienak. Askotan saiatzen nintzen hara be-  
giratu gabe errepidea pasatzen, baina ez nuen inoiz lortu dendara  
sartu gabe pasatzea. Oraingoan ere, bi opiltxo erosita joan nin-  
tzen nire ikasketak egitera.

Gelako neskak meheak ziren denak. Ni baztertua sentitzen  
nintzen haien artean. Ez nintzen inoiz nire arazoei buruz hi-  
tzegiten ausartu inoren aurrean. Lotsaturik sentitzen nintzen bes-  
te neskak niri begira farrez hasten zirenean.

Egun hartan, neska berri bat etorri zen gelara, besteak be-  
zain igarra zen, baina nire laguna izateko desioa agertu zidan

eta nire ondoan eseri zen. Begirada izutia zuen eta bere begi handi eta beltzen azpian, gaizki ederztatutako betazpiak zituen. Eguraldi eguzkitsua eta bero handia egiten zuen arren, besarte luzedun jertsea eta galtza urdin batzuk zeramatzan. Nahiko zarpail eta zikin jantzia zegoen, baina pertsona jatorra iruditu zitzaidan.

Egunak aurrera zihoazen eran, gero eta estuago zegoen gure arteko harremana, eta genituen kontu eta arazoak bata besteari lotsarik gabe esateko prest geunden. Gu biok, gelako neska taldetik kanpo ibiltzen ginen, ez zitzaizkigun haien txatxankeria eta murdurikazioak batere axolik eta gure giroan ederki konponzen ginen. Oso momentu atseginak igarotzen genituen elkarrekin, baina ez nuen inoiz ulertu haren begiradan zegoen gorrotoa eta leinurua, haren astebukaeretan atera nahi eza, poliziak edo hauen autoak zeuden lekutik alde egin nahia... elkar ongi eza-gutu genuen arren, ez zen haren aurpegian beldurra eta mesfidantza besterik ageri.

Niri, astebukaeretan atera nahi ezarengatik ematen zidan zuriketa, lana egin beharra zen, beraz, nire ahizpa txikiarekin etxean gelditzen nintzen.

Ez genuen gurasorik, eta ahizpa eta biok bakarrik bizi ginen. Etxe akuratu batean bizi ginen, ikastetxetik kanpoko orduetan agure baten etxean egiten nituen garbiketa lanekin lortzen nuen diruarekin ordainduz.

Ameriketako gure izeba batek dirua bidaltzen zigun astero, gure ikasketak ordaindu ahal izateko. Hala bizitza aurrera eramanezakeen.

Agurearen etxetik, hamarrak aldean irteten nintzen. Etxe hura, hiritik nahiko aldendua zegoen etxebizitza multzo batean zegoen kokaturik, eta tabernaz beteriko kale hotz, estu eta ilu-netatik pasa beharra izaten nuen etxera iristeko.

Beldurak jaten ninduen barnetik, baina ahal nuen itxura ausartiena hartuz, presaka pasatzen nuen inguru hura. Tabernetako txoko eta izkin guzietan ikus zitezkeen erdi mozkor zeuden gazteak, edalontzia eskuetatik irristatzen zitzaielarik, batzuk etzanda, besteak nigarrez, edo algaraka, zorabiatuta... pertsona batek eduki ditzakeen sentimendu guztiak ageri ziren han pilotuta.

Bapatean, gelditu egin nintzen, lurrean eserita behera begira zegoen gorputz luze, argal eta zuri hura ezagutzen nuela iruditu zitzaidan... bai, bera zen, nire laguna... baina, inoiz baino zurbilago zegoen, oso arropa gutxi zeraman, arritzeko gauza! Besoetan, lepo ondoan eta hanketan, zenbait zauri ikus zitezkeen, bere azal finean oso nabarmenak zirenak.

Momentu hartan gora begiratu zuen. Harridura aurpegia jarri zuen ni ikustean, argi zegoen ni han egotea ez zuela espero. Erdi mozkor zegoela iruditu zitzaidan nire ezjakinean. Izerdi patsetan zegoen. Bere betazpiak oso nabariak ziren eta begiak dizdiratsu zituen, ilea sakabanaturik eta aurpegia oso margoztatua zeraman.

Une batean irrifar trufari bat bota zidan, eta atzerritar baten aurrean bezala sentitu nintzen. Niretzat sentimendu berri bat izan zen baina ez zitzaidan batere atsegin.

Larri-larri eta aldamenean zituen koskei esker, zutik jartzea lortu zuen, eta eskuarekin tabernaren barnealdea ozkatu zidan sartzeko esanez.

Barra ondoan gelditzeko esan zidan eta aurrera jarraitu zuen zabuka eginez itxura oneko gizon batzuingana hurbildu zelarik. Elkarrizketa labur baten ondoren, gizonak niregana etorri ziren.

Nire laguna, ondoan zuen gizon batengana zuzendu zen hitz batzu esanez. Honek, era berean, erantzun bat eman zion, neska, bere mahalean eseri zelarik, laztan goxoak eginez eta

musuka. Nik, bere senargaia izango zela pentsatu nuen. Nire usteetan barneraturik nengoela, nire parean jarri ziren lehen aipatutako gizonak, ikuskizuna estali zidatelarik. Jantzi beltza eta lepokoa zeraman gizona mintzatu zitzaidan. Luzeena zen, azal ilunekoa, betaurreko beltzak zeramatzan eta ahots ozena zuen. Nire gorputza irristikutzeraino hurbildu zitzaizkidan eta beraien arnas azkarra entzun nezakeen. Nire arazoak konpontzeko zerbait emango zidatela esan zidaten, ez beldurrik izateko. Garai hartan, nuen arazorik handiena lodiera zela pentsatzen nuen.

Eskubian nuen gizonak, sakeletik pildu bat atera zuen eta hartzeko esan zidan. Pildu hura droga zen, baina nik garai hartan gauza hauei buruz ezer gutxi nekien eta, itzalgaitza alde batera utzirik, irentsi egin nuen.

Momentu batean ez nuen ezer berezirik nabari, baina gero, oso ongi sentitu nintzen. Nire laguna zer egiten ari ote zen pentsatzea ez zitzaidan bururatu ere egin.

Biharamunean, buruko minez iratzarri nintzen. Nire ahizpa lo zegoen oraindik. Ez nintzen oso ongi aurkitzen eta ikastetxetik ez agertzea erabaki nuen. Erabaki hau hartu nuenean, gauza bat bururatu zitzaidan; aurreko egunean hain ongi sentitu banintzen pildu horrekin, zergatik ez berriz hartu?

Arratsaldean, ez nintzen agurearen etxera joan, hala ere, tabernara itzuli nintzen. Han zegoen nire laguna mutil gazte batekin. Orduan konturatu nintzen emagaldua zela. Ez nintzen beregana joaten ausartu eta eserita zeuden gizonengana zuzendu nintzen beste pildu bat eskatzeko.

Oraingoan txikienak bortizki erantzun zidan, dirurik gabe ez zegoela ezer lortzerik.

Gero eta okerrago sentitzen nintzen, eta zerbait behar nuen nire buruko minak lasaitzeko, baina diruz oso larri ibiltzen ginen eta ezin nuen alferrik bota diru hori.

Azkenean etsi nuen, nire gaitzak barrena erretzen zidan eta ez nuen beste aukerarik. Benetan garestia zen droga hura. Nire burua atzipetzen nuen on egiten zidala pentsatuz, baina gero eta okerrago jartzen ninduen.

Drogen putzu sakon eta ilunean sarturik nengoen jadanik. Dirua makurkeria horretan parrastatu nuen eta ez nuen jateko haina dirurik... mehetzeko modu ederra!

«Koka» bezalako droga finetatik, heroina ziztatzera iritsi nintzen.

Egun haietan, nire lagunaren heriotzaren albistea zabaldu zen tabernan. Aldizkarietan bere argazkia ikusi neunean, nire egoeraz konturatu nintzen, baina ordurako, drogaren menpe nengoen, eta emagaldu bat bezala nenbilen mundutik. Mehetzea lortu nuen, bai, baina nire ideiak bide okerretik joan ziren. Zaila izango zen berriro atzera egitea. Ez nengoen nire buruarekin konforme eta drogak ez zizkidan arazoak besterik ekarri, baina ez nuen aldatzeko indarrik. Ez nuen nire burua ezagutu ere egiten.

Nire mundu berrian, ez nuen besteengan pentsatzen, eta ez nintzen konturatu, nie ahizpa, nirea bezalako mundu ustelean sarturik zegoela. Bere burua zaintzen ez nuen jakin eta nire arduragabetasunak eritegi baterara eramane zuen. Oso droga gogorra hartuta lurtean aurkitu omen zuten. Hori jakin nuenean, presaka joan nintzen ahizpa ikustera. Urduri itxaron nuen sartzeko baimena eman zidaten arte. Lo zegoela esan zidaten eta atea piskanaka ireki nuen esnatzeko beldurrez. Gela hartan isiltasuna zen jaun eta jabe. Leiho-sarea igo nuen nire ahizparen aurpegia ikusi ahal izateko. Lo goxoa zuen. Masail hezurra eta betazpiak oso nabarmenak zituen. Egoera hark malko batzuk isuri arazi zizkidan. Bere azal fin eta zurizka maitekiro laztandu nuen, eta begiak ireki zituen. Bere ingurua begiratu zuen eta zerbait esaten saiatu zen. Ahoskatzea lortu zuen hitz bakarra,

«BIZI» izan zen. Hitz hura, nire bihotzaren barreneraino sartu zen eta berriro ere, malkoak hurbildu zitzaizkidan begietara. Presaka leihorantz joan nintzen nire ahizpak nigarrez ez ikus-tearren. Bapatean, nire atzekaldean, intziri bat entzun nuen. Atzera begiratu nuen eta nire ahizpa ohetik kanpo ikusi nuen, ahotik odola zeriola. Korrika gelatik irten nintzen mediku baten bila. Sendagilea ere agudo etorri zen eta bere atzetik atea itxi zuen. Hamar minutu inguru beranduago, erizainak, berri txarrak eman zizkidan, nire ahizpak bizitza galdu zuen gibela ahotik botata. Niretzat, kolpe handia izan zen hura. Nire familia osoa galdu nuen. Bakarrik nengoen mundu honetan, eta barnetik, lore zimelez beterik. Bizitza berri bat hasi behar nuen. Bizitza bizi behar nuen. Barreanean nituen armiarmasareak kendu eta garbiketa bat egin. Nire ahizpak esan zuen azken hitza, nire azken hitza izan zen. Droga eta zikinkeriarik ez dagoen mendi garbi batetara joatea erabaki nuen, nire barrena garbitzera.


Urte batzuk igaro dira garai hartatik, barreanean lore berriak ditut, itxaropenez betetako lore gardenak, bizi nahi duten loreak. Egunero aurkitzen dut bizitzari baietza emateko arrazoi bat. Bizitza bi egun dira eta bi egun horiek, BIZI egin behar dira.



## **POESIA. A maila**

B.B.B. 3. kurtsoa, UBI,  
L.H.ko 2. gradua eta  
I.E.E.ko 2. zikloa.





## **Hiriaren ostadarra**

Xabier Aranburu Zeziaga  
Batxilergo Institutua  
BERGARA



Zementuzko bloke ilunezernaldua  
Hiria...  
Txakur beltzez betea  
Hiria...  
Pentsamendu grisez hornitua  
Hiria...  
Gurutze marroi faltsuei lotua  
Hiria...  
Janzki gaztainkara beraren jabea  
Hiria...  
Begi moredun gazteak  
Infernuari begira  
Hiria...  
Irri purpurak dantzaka  
Hiria...  
Odol gorritz estalia  
Hiria...

Urre berde guztia  
    ia desagertua  
    Hiria...  
Esfera urdinez atxilotua  
    Hiria...  
Adreilu laranja,  
    langile sutsuaren  
        izate guztia  
    Hiria...  
Iluntasun horiz argitua  
    Hiria...  
Arrosa zenaren irudia  
    Hiria...  
Ile txuridun umea  
    nora begira  
        ez dakiela  
    Hiria...  
Hots gardenez sortua  
    Hiria...

Gauaren isiltasunean  
esfera horiak airean,  
urre berdea lanean,  
mozkor jakintsua  
eta bere kidea atzean;  
oihu bat gauean  
—Utz nazazu bakean!

Gauaren ostean  
argia...  
Txori gatibuak kalean  
arima txuriak etxean  
larrosa beltzak  
bidean  
eta ni,  
noraezean.

Hiria, nire izatearen  
bizia.

Hiria, nire herioaren  
hiltzailea.

Hiria, nire berrilketa  
ikusiko duen  
bakarra.

Hiria, nire garrasi gorrak  
entzuten duen  
guztia.




Eguneroko borroka,  
dagoeneko,  
hasia da.  
Zauritu egin dute hiria...  
Gorpu hilak  
elkartzen dira kalean  
—Zauritu egin dute hiria!!

Heldu da ordua,  
ihes egin dezagun,  
jadanik, hau ez da  
hiria...  
—Zauritu egin dute hiria!!

Heldu da ordua,  
ihes egin  
eta ospa dezagun  
gure  
bizi berria!!!





## **Oihartzun eta tenk**

Patxi Galarraga Aiestaran  
Lizardi B. I.  
ZARAUTZ



Guztiak dira,  
denak daude,  
aidean nahasirik:  
hotsak.

Gauez,  
hiri beltz batetan,  
saxoa.  
Urrezko adarraren doinua,  
gozoa,  
negar lanturu.  
Euriak distira arazten dituen  
kale hezeetan zehar,  
irristatuz,  
nora ezean doanarentzat,  
argizko itzal erakargarri.  
Goibeltasunean irria dagien  
«Blue» hiritarra.

Esnatu berria den egunean,  
euskal mendietan,  
txalaparta.  
Haragi bakarreko gorputza,  
egurrezko bihotz.  
Mendi busti,  
baso bizietan,  
bizkor doa oihartzuna.  
Kolpe huts,  
natura hots.

Eguzkipean,  
kresalak azala zuritzean,  
soinurik garbiena.  
Gazia.  
Larru azpian,  
eztarri eztitsua,  
izaera baten arima.  
Herrimineko letrak,  
mingotsak,  
herriak abestuak.

Arrats argitsuan,  
kontrastea lekuko,  
kitarra.

Igeltsu zurizko azal bat,  
barrunbe iluna  
eta barnean gorria:  
odol eta suarena.  
Harien kantarekin,  
egur gainean  
txalapartaren ahaide.  
Geroago,  
ilargia lekuko,  
burni izpi.  
Eta gorri bustia.

Bizitzaren ilunabarrean,  
heriotzaren egunsentian,  
zerraldo ederrarentzat,  
organoa.

Itzal goibel,  
argi mistiko,  
argizari garbi,  
usain zuri.  
Harrian egur,  
hezean hotz.  
Réquiem gotiko bat,  
arima arintzen duen soinua,  
begi eta eztarritik ezin irtenik.


Arimaraino murgil,  
barnerako ziztada epel,  
leun.  
Sentimenduen islada ikustezinak,  
marraztu gabeak.

Taupada,  
haize eta dardar.  
Larru,  
odol eta negar.

Aidera zabalduak,  
gozamen pizti.

Hotsak...  
DOINUA.





## **Taiga eta Zorrilla**

Patxi Galarraga Aiestaran  
Lizardi B. I.  
ZARAUTZ



Ibiltaria nintzen.

Basoan aurrera  
elurrak  
bidea eta hots guztiak  
estali zituen.

Galdua nintzen.

Nora ezean,  
elur azala zulatuz  
bertan barneratuz  
Beldurturik.

Hoztu nintzen.

Zeru beltzetik  
mami zuria zetorren.  
Zulo ilunetatik  
ziztu hotza.

Basoaren muinean

itxaropen argi bat  
ikusi nuen,  
etxola bat.  
Itzal eginez  
neskatxa bat.

Bakarrik zegoen

eta eguzkia azaldu arte  
geratzeko esan zidan.  
Eta sutondoan,  
bere ondoan  
lo egin nuen.

Basoaren muinean galdurik zegoen ibiltari hura

oraindik etxola txikian dago.

Kanpoan

elurrak ez du atertu.

Eta barnean,

sutondoan,

gizona.

Bere ondoan emakume bat.

Orain ez dago bakarrik

eta

ikarak ihes egin dio.

Kanpoan izotza,

barruan beroa

eta

barneetan sua.

Baina

gau batetan  
izpi batek  
nire begiak zabaldu zituen.

Sua itotzean,

errautsaren berotasunean,  
emakumearengan negarra jarri da.  
Lotan dagoen negarra.

Arnas berria

sartzen utzi duen atea  
zabaldu dut.

Eta

ibiltzen hasi naiz.  
Etxola  
atzean utziz,  
itzal egiten duen  
neskatxarik gabe.  
Ibiltzeari ekin diot  
baina ez naiz  
ibiltaria.

Iheskaria naiz.

Arimak  
negar egiten du.  
Eta begiek ixurtzen dituzten  
malkoak  
azalean gelditzen zaizkit,  
hotzarengatik gogorturik.

Odol malkoek

elur txuria  
gorritzen dute  
eta haizeak  
nik utzitako arrastoak  
ezabatzen ditu.

Nire inguruan

ez dago babesik,  
ez dago zuhaitzik.  
Dagoen argi bakarra  
nire bizkarrean.  
Gero eta urrutiago.

Odol malkoak ixurtzen zituen

iheskari goibel hark  
ez zuen  
baso gehiagorik topatu.  
Ez zen galdu,  
eta ez zuen  
inongo neskaxaren itzalik ikusi.  
Itsasoan murgildurik  
bait zen.

Atzean


etxola txiki bat utzi du.  
Eta  
barruan zutitzen ari den  
geriza bat.  
Sua duen emakumearena.

Garrak

bizitu ditu.

Eta iheskaria bertan errea bedi.





## **Zentzu eta funts**

Mikel Imaz Irastorza  
Oianguren B. I.  
ORDIZIA



Argizari xuriaren bihotza dakusat,  
Lausenguratsu, nire hegoak irauliz  
gomuten gaindi...

Ene arima haragiztatuaren esklabu,  
hodeien erregina, eguzki, itzal!!!  
Ihintza lez zure gorpua nekusan,  
hosto leuna lez zure itzala  
ezpainetan darabilkit.

Ostadar kamuts, keinu xume, amorante krudel,  
olatugain ixil, ixi, ix, i...

Hitzaren yaupaleme zaitut,  
unibertsoaren gordintasun axiala isuriz,  
zure aurpegi ubelduaren usaina dut laket,  
zure irrifarraren hoztasuna dut seme,  
hilobi bakartzat zaitut,  
otartto hautsi baten odola darabilkit oinetan,  
basoaren ertzean zure zurrunkak ezpain geldoaren  
hutsune sakaratua ezkututzen didate.

Loreil bete, izar gorri, eguzki erpin, arrats zuri,  
amets ito, izen taigabe, non zaitut, non ene Poesi?

Bart ilun nekusan ene lira bakarra,  
egunsentian garbi, lerdan, osotoro dantzuzkit  
musker koldarrak...

Taliak eraman ninduen zugana,  
Eratok maite ninduen zugatik,  
Kliok miretsi ninduen zu lez,  
Uraniak izartu ninduen zu utziz,  
Euterpek abestu zidan zu barik,  
Polimniak irrifar egin zidan zu nasaituz...

Musek margotu zidaten koba ilun hau,  
Nausikaak inoiz ihes egin ez lukeen  
gordeleku hontan ditut kantatu  
hainbat erromantze,  
Apoloren zitaraz jotzen ditut ene sonetuen aintzirak,  
itsas barrenak, eremuak, basoak...

Tesalian ninduzun aurkitu,  
Epiron ninduzun zugaratu,  
Peloponeson ninduzun isolatu,  
Arkadian ninduzun isekatu.

Urrunean, Bakikoen abarraga nekusan,  
Dionisiakoen estasiak darabilzkit gogoan,  
Epidauroren Elektrak dantzuzkit senean,  
Korintoko sutea gorrituz ene bihotzean...

Fuste biribil baten gaindi doazkit ene koblak,  
pinakuluaren tontorrean kantuz maitatuz,  
arbotanteen hutsune hutsal urratuetatik  
zure mamu argia dakusat, kripta hilzori  
baten pean dizkidazu abesten zure zejel gorrotagarriak,  
eta nik, hilkor inuxente honek, ez dut zure izenaren  
labaindura somatu, zure izarren dizdira aurpegian  
darabilkit, ezin nezake ordea, zurea ala nirea den esan,  
ez naiz gauza.

Lore argiaren narotasuna  
ene arimaren alboan dakust,  
mentura dantesko haren  
uhin gezalak jada joan  
balitzaizkit lez sentitzen dut ene buru  
loretua ordea,  
ez dut ulertu nahi, beldur naiz zure aitorpenaz,  
denbora da igaro, erreka ezin izan erreka,  
itsasoak zetazko intuizioz narabilkit,  
funtsean, zentzuan, imajinazioaren eremu eskergetan  
zure izena berriro datorkit,  
aldiz ez ditut ulertzen zure mingain sarkastikoak  
itsasoratzen dituen lili zimelduak,  
PE... TRAR... CA...

OH CLEMENS, OH PIA  
OH DULCIS VIRGO MARIA!

Trumoia dakust, han ostertzaren larrosean,  
Jainkoak utzi nau biluztasun betierekoan,  
igo naiz igo zure almena ilunaren gainkaldera,  
lau bider entzun ditut kanpaien kexu helduak,  
lau bider sentitu ditut zure hitzen enbata  
zurrunbilotsuak, ene bihotz itzalean itsatsiak...

Eskifaiak, lurra! dio belauntziaren  
sabeletik, Medoraren itxaropena dakust  
arima naufrago bakartien gaindi,  
marinelen biraoak eta bozkario latzak ditut abestu:

«Etor zaite afaitera,  
salaren ikustera,  
han emanen dozogu  
laztana papora!».

Hitz lauz, nortasun lirikoz,  
zure hodei burrunbatsuen  
Poesia dakust,  
o ene Birjina!, saildua sailduen artean,  
emaidazu hitzen balio zehatza  
bestela ken idazu ene begietako hatsa,  
bizi nadin esperantza...

Uriaren ke espiralak arima barrenera datozkit,  
zure paradisuaren su leuna itzaliz,  
himno sakaratu bat legez haren ohiartzun nagiak  
ditut noizpait entzunen.

Zure Uria, Uri, Zu, Kabafek aintzina  
abestu zuen hura al zinen ala  
haren iduri espektrala?

Zure Doinuaren melodiak beste lurralde  
batetarat narama, amets galduen izarretara?  
Ametsak, Nervalen hitzetan hadek irunduriko  
jazki zoragarri horiek,  
gure azken sentipenen gordeleku,  
gure etsipenen oroipen jainkotarra,  
ametsak, gizona ariman bilakatzen duzuen  
zerorriek, arima gizajazten duzuen berberok,  
erakusiezadazue erakus, zuen benetako ilargia,  
urezta nazazue ureztatu, zerorrien itsasoen  
magaletan, hil nazazue hil, zerorrien urrelilien  
loraziletan...


Ene Poesi, ene Poesi!  
zugan dakusat ene existentzia osoa,  
zugan nire erromantzeen iduri amaigabeak,  
zugan ene grinaren erromantizismo desesperatua,  
zugan ilunabarraren enaren hegoak txioka,  
zugan nire izatearen zentzu eta funtsa,  
zugan ene sorterriaren eguzki lasaia,  
zugan nire hizkuntzaren sustrai leiala,  
zugan ene poemaren azken metafora...

Ene Poesi, ene Poesi!

«NOLO QUOD CUPIO STATIM TENERE  
NEC VICTORIA MI PLACET PARATA».







## **Zergatik?**

Mikel Agirre Lazkanoiturburu  
Garaialde Lizeoa  
URRETXU



1. Hamasei urte bete nituen  
maitemintzeko adina,  
errekak alai, zelaiak berde,  
zerua, berriz, urdina;  
mundu desberdin berri bat zela  
nengoen ni ezjakina,  
indar guztiez egin nuen nik  
moldatzeko ahalegina;  
ohartu nintzen ez nengoela  
mundu hontara egina.
2. Aspaldidanik sentitzen nuen  
zukanako estimua,  
era honetan aurkitu nuen  
maitasun sentimentua,  
anitz denbora igaro zuen  
niregandik aldendua,  
ausardiarik ez nuen eta  
ezin aurki momentua,  
eskatu nahirik begirada bat  
bihotzera zuzendua.
3. Banaturikan ezinegonak  
elkartu gintun azkenik,  
«maitatzen zaitut» entzun nuen nik  
burua ia galdurik,  
ez nuen inoiz izan espero  
halako amodiorik;  
zorion hori erositzeko  
ez da munduan dirurik,  
ba al da inon beste edozer  
gizonak behar duenik?

4. Gau epeletan izar artean  
aurkitzen ginen bakarrik,  
zure begiak nigan finkatuz  
helden zenidan eskutik,  
ezertxo ere ezin esanda  
geratzen nintzen ixilik,  
ez ziren helden nire ahora  
bihotzaren agindurik,  
ez bait nuen nik une haietan  
beste ezeren beharrik.
5. Denborarekin agertu ziren  
erru gabeko lastimak,  
ezin bereizi une alaiak,  
tristura une ta minak,  
laino artean nora ezean  
zebiltzan gure arimak.  
Halabeharrak egin gintuen  
maitasunaren biktimak,  
ezin zuzenduz inola ere  
aurretik gaizki eginak.
6. Zeru beltzeko izar guztiak  
guretzat pizten dirade,  
beren argiak ez du balio  
tristeturikan bagaude,  
dagoeneko ez dut ikusten  
sufrementuan bazaude,  
nire begiak bihurtu dira  
iluntasunaren kide;  
askogatikan nahiago nuke  
itsuturikan baleude.


7. Esan zenidan egun batean  
zure barrena hustuta,  
ezin zendula zure asmoa  
denbora gehioz ezkuta,  
gure arteko amodioak  
zirudiela hoztuta,  
dagoeneko itxaropena  
zeneukala galduta,  
zorionera doan bidea  
geneukala moztuta.
8. Sentimentuak ezkutatzea  
izan zen nire krimena,  
otoi eginez gauza ez zedin  
gure arteko azkena.  
Oraindik nuen erakusteko  
bihotz barneko onena,  
horregatikan oraindik ere  
ezin hartu etsipena...  
oroitzapenek eman zidaten  
jarraitutzeko kemena.
9. Edukiriko frakasu hartaz  
sentitzen nintzen errudun,  
ez bait nuen nik zure aurrean  
behar bezala erantzun,  
kulpa hartatik libratu nahirik  
negar zotinka gau ta egun;  
«Ez bizitzari ateak itxi,  
ez ikusi dena ilun,  
gure asmoek huts egin arren  
izan gaitezke bi lagun».

10. Ezin izan nun lagun bezala  
harreman berri bat hasi,  
nenbilelako une guztitan  
maitia zure ihesi.  
Zoriontasuna zuk adina  
etzuen inork merezi,  
hala ta guztiz beste bateaz  
ezin zintudan ikusi;  
laguntasuna posible zenik  
ezin orduan sinetsi.
11. Nire burua ez nun ikusi  
horren galdua askotan,  
hala ta guztiz saiatu nintzen  
lagun batekin hizketan,  
berarengandik ikasi nuen  
ez murgiltzea kezketan,  
ikasitako guztiagatik  
nago oraindik zorretan;  
«bakardadea» zeukan izena,  
lagun fidela benetan.
12. Bakardadeak ez du ematen  
ezertarako indarrik,  
ahaleginak horregatikan  
izan ziraden alferrik,  
uste izan nuen nik ez nuela  
beste inoren beharrik.  
Guztiengandik alde eginda  
egon nahi nuen bakarrik,  
sinistu nahi nun posible zela  
existitzea zu barik.

13. Existentzia ez zen posible  
zure maitasun gabea,  
nostalgiazko negar malkoak  
alferrik ziren ordea.  
Pena handi bat sentitzen nuen  
nire barnean gordea:  
ikusi eta ezin eskura  
maitatzen nuen lorea.  
Horrela bizi baino ainitzez  
nahiago nuen hiltzea.
14. Karitatezko konpromezurik  
ez nuen zutaz espero,  
ez bait nuen nik ontzat hartuko  
horrela izanez gero.  
Hala ta guztiz zure laguntza  
behar nuen nik berriro;  
zuri, ordea, entzuten nizun,  
ez omen zeuden seguro;  
beldur zinela berriz hasteko  
elkar min egin ta gero.
15. Ohartu zinen egun batean  
berandu zela jadanik,  
ez zegoela era horretan  
jarraitzeko arrazoirik;  
ez da posible, esan zenidan  
ez izan esperantzarik.  
Nire gogoa izan ez arren  
aldendu behar zugandik,  
hala ta guztik bihotz barnean  
gordetzen zaitut oraindik.







## **Itsasoak daki!**

Asier Kastañares Etxezarreta  
Garaialde Lizeoa  
URRETXU



Egunsentia...  
Lainoak goibel  
ikatz bailiren beltz.  
Nigarra,  
gorrotoaren nigar larria,  
euria...  
Haizearen dantzan  
Harantz  
                  eta  
                  honantz.  
Nora noa?  
Hemen  
                  hor  
                  orain han,  
Udazkeneko hosto  
bustien gainerik,  
Azaroko zizara  
bustien azpian,  
Asteleheneko bidetxidori  
bustietan zehar,  
dena bustitzen nabil.

Zer naiz?  
Euri?  
Ez, ez naiz euri.  
Ni al naiz?  
Ni? Hutsa besterik ez.  
Petalorik gabeko larrosa,  
mamirik gabeko sagar,  
belarrik gabeko zelai,  
zuhaitzik gabeko baso  
sentitzen naiz.  
Mmmm...  
zorion usaina...  
hosto  
    zizara  
            bidetxidorreko  
        urek  
bat bakarra sortu dute.  
Zer da hau?  
Plazerik gorena!  
Txoriak arraultza haustean:  
askatasuna;  
Arra tximeleta bihurtzean:  
askatasuna;  
Zapaburutik igela sortzean:  
askatasuna;  
Txori  
    tximeleta  
            igel  
bezala: aske naiz.

Ni al naiz?  
Bai, ni neu!  
Egin naiz,  
    sortu naiz,  
        mugitzen naiz,  
            bizi naiz!!  
ERREKATXO naiz.  
Eta aurrera noa...  
Eguzkiaren lehendabiziko urrezko izpiak...  
Harriska leun eta zurrunean  
    dantzatzuz,  
Goroldioaren hezetasun goxoaz  
    gozatzuz,  
Amorraien kilikili jolastiekin  
    irri eginaz,  
Izokinen jauzi arinak  
    mirestuz,  
Saltoka nabil  
    han hemenka.  
Aaaa! Ene!  
Askatasunaren zapore bustia...  
airearen laztan garbia...  
URJAUZI naiz.  
Eta aurrera noa...  
Eguerdiko eguzkiaren izpiek erre egiten naute...  
Tabernari tripontzia  
    siestan,  
Mozkorra kaleko aulki biluzian  
    biraoka,  
Lantegiko kea etheen zuritasunean  
    jolasean,  
legez, ni neure zabaltasun berrian,  
lasai nabil.  
IBAI naiz.

Goroldioz gozatu ezin:  
goroldioaren hezetasun, hondakinez zikintasun;  
Amorraiak senti ezin:  
amorraien kilikili, hondakinen ostiko;  
Izokinak mirestu ezin:  
izokinen jauziak, hondakinen ziztada  
                    bihurtu  
eta ni  
ezintasunean usteltzen naiz.  
Ezjakintasunaren hutsak  
  betetzen nau;  
Ulerkaiztasunaren noraezak  
  bideratzen nau;  
Nazkaren nahitaezko indarrak  
  ahultzen nau;  
Aiztoaz  
                    txoriaren  
                                    askatasuna  
  moztean  
  bezala,  
Ni ahaztua, torturatua;  
Bihotzaren  
                    bizia  
                            pozoinez  
                                    usteltzean  
  bezala,

Ni jipoitua, mesprexatua;  
Aizkoraz

sahats

zaharraren

maisutasunarekin

amaitzean

bezala.

Ni zalpadua, baztertua;

Gizarte ala zoro arte?

Eta aurrera noa...

Eguzkiaren azken izpien ahultasuna nabari dut azalean...

Nire zabaltasunean maisu, errege,

nire odol gardena pisu den bitartean;

gehiegi ikasi izanak moteltzen nau.

Bihotza lasai, adimena urduri,

xedearen gertutasunean.

IBAI ZABAL naiz.

Hondakinen zauriak

barkamen

mingarriak

irentsi ditu,

barnetik, inurri haragijale bailiren

jan egiten naute,

erre egiten naute.

Barkamena, barkamena, obsesio bat,

gizakien ezjakintasunagatik

oharkabetasunagatik,

azal latz, bihotz gardeneko dakusat,

eta erruki naiz.

Horrenbeste ikasi eta deusik jakin ez.

Ezpatak haragiaren zaporea

dastatzean duen nahastea,

Txahalak hiltokiaren iluna

ulertzean duen ezjakina,

Gizonak bizitza topatzean

izatearen desbabesa,

neurearen adinakoa.

Eta aurrera noa...

Zer da hura? Ez mendi

ez basamortu

ez zeru.

Ez dut ezagutzen,

Edo ni neu naiz?

Zer da hori?

Helburua, neure jitea, ni neu.

Arbasoen usain gozoa...

Ni ur, bera ere ur.

Zer da hau?

Estasiaren plazeraz bere eta neure urak

bizitza-heriotzaren dantzan

maitatzen dira, nahasten dira.

...eta iritsi naiz.

itsasoa... ITSASO naiz.

Eguzkiaren azken izpiak horizontearen itxaropenean igerian...


bai, ITXAROPEN naiz...



## **POESIA. B maila**

**B.B.B.ko 1. eta 2. kurtsoa,  
L.H.ko 1.gradua eta  
I.E.E.ko 1. zikloa.**





## **Abestiaren argia**

Begoña Beobide Azpeitia  
Karmelo Etxegarai Ikastola  
AZPEITIA



Egunsentia,  
esnatzean eguzkia  
Jaunak  
opa digun

ABESTIA:

txorien lehen k<sup>a</sup>n<sub>t</sub>a<sup>l</sup>d<sub>i</sub> gozoa,  
lili zzzurien jaiotze berria,  
oilarren kukurruku luuuuzea,  
arrainen m<sub>u</sub>g<sup>i</sup>t<sub>z</sub>e bizia,  
gizonaren eguneroko ogia.

Ekialdetik agertzen zaigu:  
argi nabar lehenengo  
urretsu geroago  
are eta  
indartsuago,  
gure abestiaren

ARGIA.

Bere izpiak  
nire leihorantz datozenean,  
nire aurpegia laztantzen dutenean,  
bere beroa sentitzen dudanean,  
bere izpien indarra areagotzen denean,  
nire begiak

irekitzen dira

ABESTIAri

ongi etorria emanaz.

Itsasoan islada da

argi garbiaren egonaldia:

egunaren argia izanik,

bizidun guztien bizia izanik,

handia bezain garbia izanik,

edozein margoaz,

margotu daitekeen

ABESTIA.

Goiza:


egunsentiaren etorrera,  
ikusgai zaren paisaia,  
eguneroko doinu berria,  
bizidun guztiontzat  
bizi beharrezko dugun  
ABESTIA.

Izarrak:

agurtzen,  
arratserarte aldentzen,  
abesti berri bat igaro arte  
gehiago azalduko  
ez  
diren  
doinu bereziak...  
ABESTIAren bukaeran  
agertuko diren  
IZARRAK.








## **Ahotik ere ihes egiten dun**

Aitor Jauregi Larrañaga  
Alkertasuna Lizeoa  
BEASAIN



Hor hago hi  
gurekin bat egin haiz,  
gu guztiokin, hi ere bai,  
ametsak espresatzen ditun,  
desioak ere hireak ditun,  
garen guztia ezagutzen dun  
eta nire ondoan nahi haunat betiko,  
ezin bait dinat hi gabe  
ez bizi, ez hil.  
Ezezaguntzat omen haukate kanpoan,  
baina hirekin egongo naun ni beti  
historiaren eta istorioen gaineratik,  
begiratzen bait dinat  
eta ezagutzen.  
Azal fina daukan,  
eta askok nahi izan dinat  
zulatu  
hutsean gera hendin;  
baina ez dinat lortu,  
eta nirekin hago orain.  
Elkarrekin,  
begien aurretik igarotzen  
ikusten dinagu bizitza;  
eta familian, eta lagunartean,  
eta lanean, ez gehiagotan  
haugu, ederra, erabiltzen.

Jatorri argirik izan ez arren,  
hire antzeko beste guztien antzekoa haiz,  
eta beraien artean bereziena  
izanik, bitxikeriak  
nahi dizkinate aurkitu.  
Hire hotsa hain dun  
ederra,  
non ezjakinek,  
akelarrean bilduriko sorginen  
kantuekin nahasten dinete,  
eta berak, soilik, bakarrik,  
belarririk gogorrenak ere  
dizkin biguintzen.  
Ezin haut ahaztu, eta  
beharrezko haut  
bizitzari aurre egiteko;  
beti honegatik haiz  
nire ondoan egongo.  
Hor habil  
jendearen erakargarri,  
eta berauek miresturik  
hirezat nahi ditun;  
ni behintzat,  
dagoeneko,  
hirea naun,  
oi Euskara, ene  
ahotik ere ihes egiten dun.



## **Gauaren atseden isila**

Ainhoa Aranguren Oiharzabal  
Garaialde Lizeoa  
URRETXU



Gaua... zer da gaua?  
Eguna amaitzen dela  
dioen araua,  
iluntasun zabalean  
isiltasun laua.  
Hori al da, bada,  
guztiontzat gaua?

Atsedeen lasaiaren  
boterea,  
bakarti eta lotsatien  
adorea,  
erromantiko eta maitaleen  
nahikundea,  
teilatutako gabeko ibilkarien  
aterpea,  
lapur eta alprojen  
gaizkidea,  
neska-mutil koskorren  
logurea,  
pentsamendu sakonen  
gunea,  
boterea,  
adorea,  
nahikundea,  
aterpea,  
gaizkidea,  
logurea  
ala gunea?  
Zer da guretzat, gauaren unea?

Berbots, soinu, buila,  
zarataren jasangaitza,  
denbora, presa, azkartasuna  
dira gizakion gaitza,  
gauean nagusituko den pakearen heriotza.  
Ez al da halakoa  
hirietako bizitza?

Eta hirian bizi den  
biztanlearentzat,  
gauaren, zeruaren iluntasuna,  
bakoitzaren barneko isiltasuna,  
oilarraren kantuaren alaitasuna,  
eguna jaioko den lasaitasuna.

    Eta pentsamenduak  
    eta oroitzapenak  
    eta bakoitzaren desioak  
dabilzkio buruan,  
ezin bait du  
horretan pentsatu  
egun neketsuaren  
erruan,  
baina bai ilargi  
eta izarren argitasuna  
ageri direnean  
zeruan.




Gauak eskaintzen digu  
egun neketsu baten  
atseden ordaina,  
gauak eskaintzen digu  
guztion lasaitzerako  
isiltasun, pake haina.  
Gauak eskaintzen digu  
amets gaiztoetako ikararen  
aztarna, orbaina,  
gauak eskaintzen digu  
amets goxoetako nahikarien  
bitarte liraina.  
Gauak eskaintzen digu  
hamabi kanpaikada berezien  
magia bikaina.

Soinuak galtzen diren  
hutsunerik  
bukaezinena.  
Hots eta nekeak itotzen dituen  
itsasorik  
sakonena.  
Aireak marmar txikiena izkutatzen duen  
hutsarterik  
mugagabeena.  
Izaki bakoitzak senti lezakeen  
sentimendurik  
bakartiena.  
Horixe da GAUA.

Gaua... zer da gaua?  
eguna amaitzen dela  
dioen araua,  
iluntasun zabalean  
isiltasun laua.  
Hori al da, bada,  
guztiontzat gaua?

Boterea,  
    adorea,  
        nahikundea,  
            aterpea,  
                gaizkidea  
                    logurea  
                        ala gunea?  
Zer da guretzat, gauaren unea?



## **Heriotzaren magalean banengo**

Garbiñe Intxausti Ormazabal  
Garaialde Lizeoa  
URRETXU



Doinua: «Ostatuko neskatxaren koplak» (Oskorri)


1. Gu bion oroitzapenak,  
bizitzako ederrenak,  
elkarrekin pasa genituen  
unerik atseginenak.
2. Gogoan daukat eguna  
zuk alde egin zenduna,  
nire bihotzak orain dirudi  
landu gabeko beruna.
3. Behar zendun sosegua,  
ezagutu nahi zerua,  
gustora bizi ez zinela ta  
akatu zure burua.
4. Mundua utzi nahi azkar,  
orain ezin maite alkar,  
baina bizitzako une hura  
haizeak nigana dakar.

5. Bizitza honek ez al du  
une ederrik azaldu?  
Zure zorakeriaren erruz  
betirako zaitut galdu.
6. Faltan botatzen zaitut nik,  
munduan nago bakarrik.  
Zeruan ez al duzu sentitzen  
maitasunaren beharrik?
7. Hobeto bizi al zera  
Jainkoarekin batera?  
Ez al zintudan nik kantatutzen  
berak zaituen antzera?
8. Ahantzi dut zer den poza,  
bizitza nik ezin goza,  
zuk alde egitearen ondoren  
ez naiz lehengo larrosa.

9. Zer ote da heriotza?  
Lagunentzat etsai hotza?  
Maitaleen bihotz bigunentzat  
ganibet zorrotz-zorrotza?
10. Ez da galdera leuna,  
baina badut erantzuna:  
zu eta ni banatzen gaituen  
harrizko horma astuna.
11. Inoiz hautsiko ote da?  
Izango al dut aukera?  
Nire bizitzaren amaieran  
batera izanen gera.
12. Bizitza den arren idor,  
itxaropenean gogor,  
heriotz izeneko mamua  
berehala bila betor.







## **Maitasun gorrotatua**

Amaia Ormaetxea Irleta  
Sto. Tomas Lizeoa  
DONOSTIA



Lehen aldiz zintudanean ikusi,  
lehen aldiz  
zure begirada goxoa  
zenidanean igorri,  
nire bihotzeko  
mailarik gorena  
hartu zenuen zerorrek.  
Inoiz,  
inon,  
inork  
senti erazi ez zidana  
lehen momentu hartan  
zure ezpain gorrien  
irribarre alaiaz  
lortu zenuen, laztana.

Erraien sakonetik,  
ene bihotzeko  
zoko ezkutuenetik  
espresatutako  
sentimendu guria.  
Berehala nuen asmatu  
zu zinela,  
bai, zu,  
nire ametsetako  
maitea  
eta izan behar zenuela  
nirea.

Zoritxarreko egun hartan,  
nire esker beroenak  
nizkizun igorri  
ene bizitza kaskar  
eta arrazoigabe hari  
zentzu piska bat  
eman zion  
gauza urrienetako bat  
bait zinen zerori.

Orain, ordea,  
madarikatzen zaitut,  
nire bizia galdu duzulako,  
zure odol  
eta haragizko  
fruitu goxo bat  
barrenean daramadalako.  
Bai, zuk,  
lehen aldiz  
maite izan nuen  
mutil lirain hark,  
nire bihotzean  
su itzalgaitz hura  
piztu zenuen berak,  
orain,  
momentu honetan,  
jakin ezazu,  
gar hark  
bizirik dirauela,  
hala ere,  
inor baino gehiago  
gorroto zaitudala  
bion fruitua den  
haur errugabe hau  
maite ez duzula  
jakin dut eta.















**EUSKO JAURLARITZA**  
ARGITALPEN-ZERBITZU  
NAGUSIA



Irakaskuntza ertainteko iruzun literatur  
lehiaketa 1989

EK19110007

(BEZ barne)